

Urteko txostena 2007

eta

2008-2011 epealdirako

aurreikuspenak

Aldizkari hau honako helbide honetan dago eskuragarri:

<http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-341/es>

Harremanetarako helbide elektronikoa eta telefonoa:

economia@ej-gv.es

[945-01.90.77](tel:945-01.90.77)

Argitaratzailea: Eusko Jaurkitzaren Ogasun eta Herri Administrazio Saila
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

Legezko gordailua: VI 501/06

ISSN: 1887-1526

AURKIBIDEA


0 EKONOMIAREN EGOERA LABURBILDUTA	1
1 EAE-KO EKONOMIAREN TESTUINGURUA	10
Munduko ekonomiaren bilakaera	10
Analisia herrialdeka	13
Espainiako ekonomia	17
2 EAE-KO EKONOMIAREN ANALISIA	20
2.1 EKOIZPEN ARLOAK	20
Sarrera	20
Lehen arloa	21
Industria	22
Eraikuntza	26
Zerbitzuak	27
2.2 ESKARIA	30
Sarrera	30
Gastua azken kontsumoan	31
Kapital eraketa gordina	33
Kanpo saldoa eta lehiakortasuna	34
2.3 LAN MERKATUA	43
2.4 PREZIOAK, KOSTUAK ETA SOLDATAK	52
Prezioak	53
Kostuak eta soldatak	59
2.5 ARLO PUBLIKOA	60
2.6 FINANTZA ARLOA	64
3 EAE-RAKO ETA TESTUINGURURAKO EKONOMIA AURREIKUSPENAK	73
3.1 KANPO TESTUINGURUARENTZAT EGINIKO AURREIKUSPENAK	73
3.2 EAE-RAKO AURREIKUSPENAK	79

0 EKONOMIAREN EGOERA LABURBILDUTA

Lau urtez jarraian hazkunde erritmoa bizkortu ondoren, EAEko ekonomiak barne produktu gordinaren gehikuntza tasa zertxobait moteltzeko joera hartu zuen 2007. urtean eta %4,1eko tasa jaso zuen, aurreko urtekoa baino hiru hamarren txikiagoa baita, nahiz eta mende honetako baliorik gorenetakoa ere baden. Kontuan hartzen bada EAEko ekonomia azken hogeita bost urtean batez beste %3,2 hazi dela, hiru urtez jarraian %4tik gorako emaitzak lortu izana oso positibotzat jo behar da. Hala eta guztiz ere, joera aldaketa horrek adierazten du 2008-2011 epealdiko hazkundea askoz ere apalagoa izango dela, dokumentu honetan dauden aurreikuspenek garbi adierazten dutenez. 2008. urterako dagoeneko argitaratu den informazioak moteltzeko joera garbia aurreratzen du urte horretarako, 2007an lortutako erritmoa erdira jaitsiko baita.

EAEko eta munduko ekonomiaren hazkundea
Urte arteko aldakuntza tasak

1. irudia



Iturria: Eustat eta NDF.

EAEko ekonomiak nozituko duen moteltzea, neurri handi batean, ingurune ekonomien bilakaerak eta, oro har, munduko ekonomiaren garapenak baldintzatuko dute. Azken honek bizitasun handiko epealdia lortu du berriki, garapen bidean dauden herrialdeen bultzadari esker, eta azken bi urteetan %5aren inguruko gehikuntza tasak izan ditu, urte arteko tasan

2007ko urteko txostena

neurtuta, laurogeietako hamarkadaren hasieratik inoiz lortutako emaitzarik gorenak baitira. Beste urtebete batez, garapen bidean dauden herrialdeek pisua irabazi dute munduko ekonomiaren egituran eta BPGren gehikuntzaren %70 beraiei zor zaie. Aitzitik, ekonomia aurreratuek, oro har emaitza garrantzitsuak eskuratu zituzten arren, dagoeneko moteltzeko lehen zantzuak erakutsi zituzten.

EKONOMIA EREMUEK PISUA, HAZKUNDEA ETA EKARPENAK				1. TAULA			
	Pisua	Hazkundera	Ekarpenera		Pisua	Hazkundera	Ekarpenera
Ekonomia garatuak	56,3	2,6	1,5	Garatu gabeak	43,7	8,0	3,5
AEB	21,3	2,0	0,4	Txina	10,8	11,9	1,3
Eurogunea	16,1	2,6	0,4	India	4,6	9,3	0,4
Japonia	6,6	2,1	0,1	Errusia	3,2	8,1	0,3
Erresuma Batua	3,3	3,0	0,1	Brasil	2,8	5,4	0,2
Kanada	2,0	2,7	0,1	Mexiko	2,1	3,2	0,1
Besteak	7,0	4,7	0,3	Besteak	20,2	6,0	1,2

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, NDFren datuetan oinarrituta.

Munduko hazkunderaren laurdena Txinak ekarri zuen. Herrialde horrek berriro bi zenbakiko hazkunde tasa lortu zuen eta dagoeneko sei urtez jarraian bizkortu du bere gehikuntza tasa, oraingoan %11,9an kokatu arte, azken hamahiru urteetan herrialde horrek jaso duen baliorik gorena baita. Ekonomia horren bultzagile nagusia manifakturen esportazioa izan bada ere, azkenaldi honetan barne eskariak garrantzia bereganatu du ekoizteko egiturari, hala kapital eraketa gordinaren atalean nola barne kontsumoan. Txinako emaitzetatik urrun, baina honek ere emaitza bikainak lortuta, garatu nahian dagoen Asiako beste erraldoia dago. Izan ere, Indiak munduko BPGren hazkunderari AEBek edo Euroguneari beste ekarri zion 2007. urtean, herrialde hartako gehikuntza tasa %9,3ra igo zelako. Emaitza horri esker, hiru urtez jarraian %9tik gorako aldakuntza tasak kateatu ditu. Are gehiago, emaitza horiek Indiak gutxienez azken hogeita bost urtean lortu dituen baliorik gorenak dira. Txinan gertatzen denaz beste, Indiak zerbitzuetako eskaintza zabalean eta eraginkorrean oinarritzen du bere garapena. Errusiak ere hazkunde tasa garrantzitsua lortu zuen (%8,1), energiaren lehengaiak izan duten garestitze nabarmenari esker.

BPG ERREALAREN BILAKAERA

2. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2002	2003	2004	2005	2006	2007
Munduko ekonomia	2,8	3,6	4,9	4,5	5,1	5,0
AEB	1,6	2,5	3,6	2,9	2,8	2,0
Japonia	0,3	1,4	2,7	1,9	2,4	2,1
Txina	9,1	10,0	10,1	10,4	11,6	11,9
Europar Batasuna	1,4	1,5	2,7	2,2	3,3	3,1
- Alemania	0,0	-0,2	1,2	0,8	3,0	2,5
- Frantzia	1,0	1,1	2,5	1,9	2,2	2,2
- Erresuma Batua	2,1	2,8	2,8	2,1	2,8	3,0
- Italia	0,5	0,0	1,5	0,6	1,8	1,5
- Espainia	2,7	3,1	3,3	3,6	3,9	3,7
- EAE	2,4	3,1	3,7	4,0	4,4	4,1

Iturria: NDF eta Eustat.

Ekonomia aurreratuen multzoak hazkunde tasa garrantzitsua (%2,6) lortu zuen 2007. urtean, baina aurreko urtekoa baino lau hamarren txikiagoa. Horrek agerian uzten du moteltzeko joera hasita dagoela, eta aurreikusten denaren arabera joera hori ondorengo urteetan gehiago areagotuko da. Aipatzekoa da, bereziki, AEBetan gauzatu zen erritmo galera, urte arteko aldakuntza tasa aurreko lau urteetako baino apalagoa izan zelako. Etxebizitzaren merkatuan sortu ziren arazoak eta geroztik agertu zen finantza krisia dira ekonomia horrek nozitu zuen moteltzearen zioetako bi. Hala ere, bertako diruak balioa galdu zuen beste txanponen aldean eta horri esker kanpo saldoaren emaitzak hobetu ziren. Japoniak, berriz, hiru hamarrenetan gutxitu zuen aurreko urteko hazkunde tasa eta %2,1ean kokatu 2007koa. Txinaren bizitasunak Japoniako esportazioak areagotu ditu, baina barne eskariak ahultasuna erakusten du oraindik.

Europar Batasunak, bigarren urtez jarraian, garatutako hiru eremu nagusien arteko emaitzarik onena lortu zuen, bere BPG erreala %3,1 areagotuta. Hala ere, zenbateko hori aurreko urtekoa baino bi hamarren txikiagoa da. Gutxiago hazi izanaren arrazoi nagusia kapital eraketa gordinean dago, zertxobait gutxiago hazi zelako, nahiz eta oraindik gehikuntza nabarmena lortu zuen. Halaber, kanpo saldoak ekarpen negatibo txikia egin zuen, neurri batean euroak dolarraren aldean lortu zuen balio irabaziaren ondorioz, esportazioak moteldu zituelako.

2007ko urteko txostena

Inflazioa 2007. urtean arazoa izan ez bazen ere, urtearen azken hilabeteetan lehen ohartarazpenak entzun ziren, nazioarteko merkatuetan zenbait lehengaik izan zuten garestitze biziengatik. Prozesu horrek segida izan du 2008. urteko lehen seihilekoan ere. Hain zuzen ere, petrolioaren salneurriak, dolarretan neurtuta, goranzko norabide bizia hartu zuen eta bost urteko epealdi batean bere prezioa hirukoiztu zuen. Prozesu honen gailurra 2008ko erdialdean iritsiko zen, garai hartan petrolio gordinaren upela 100 dolarretan baino gehiago ordaintzen zelako. Euroak dolarraren aldean irabazitako balioak gorakada hori zentimo gutxi batzuetara mugatu zuen 2007an. Hala ere, 2008an prezioaren igoera oso nabarmena izan da Europako diruan neurtuta ere (2. irudia), nahiz eta urteko azken hilabeteetan moteltzeko joera garbia hauteman zen.

Goranzko presioa egin zuten beste lehengai batzuk metalezkoak izan ziren, bi urtez prezio altuak izan zituztelako. Halaber, elikagaien lehengaiak ere garestitu ziren, hamabost urte luze ia aldaketarik gabe egon ondoren. Prezioen egonkortasunari mehatxu egiten zioten faktore horiek moneta politika baldintzatu zuten 2007ko azken hilabeteetan, garai hartan kontsumoko prezioek Europan alde handiz gaintu baitzituzten Europako Banku Zentralak ezarritako helburua. Beraz, inflazioak goranzko norabidea hartu zuen ekonomiak moteltzeko lehenengo zantzuak erakutsi zituen une berean.


EAEko ekonomiari dagokionez, 2007. urtean barne produktu gordina indartsu hazi zen (%4,1). Azpimarratzekoa da barne eskariaren sendotasuna, kanpo eskariak hazkunderi puntu erdi bat kendu zion bitartean. Hain zuzen ere, urte horretan BPG hiru hamarren gutxiago hazi izanaren jatorria kanpo eskarian datza. Euskadiren hazkunde tasa berarekin merkataritza harremanak dituzten herrialdeena baino handiagoa denez, ulertzekoa da kanpo saldoak ekarpen negatiboa egitea, EAEko esportazioak asko areagotu ziren arren.

Hirugarren urtez jarraian, barne eskariak %4,4ko urte arteko gehikuntza tasa lortu zuen. Agregatu hori osatzen duten bi ataletatik, azken kontsumoan eginiko gastuak ere aldaketarik gabe eutsi zion aurreko bi urteetan izandako erritmoari (%3,8), kapital eraketa gordinak urte arteko gehikuntza zertxobait murriztu zuen bitartean. Kontsumoaren bi osagaiek aurkako norabidea hartu zuten eta kontsumo pribatua moteldu zen bitartean, kontsumo publikoak nabarmen areagotu zuen bere hazkundera.


Zenbait lehengairen bilakaera

2. irudia


Petrolio upelaren prezioa dolarretan




Petrolio upelaren prezioa eurotan



Lehengai metalikoen indizea eurotan



Janaritarako lehengaien indizea eurotan



Iturria: Ekonomia eta Ogasun Ministerioa.

Eskaintzaren ikuspegitik, azpimarratzekoa da hiru sektore nagusiek erakutsi zuten oreka, guztiek aurreko urtekoak bezalako urte arteko tasak, %4tik gorakoak, jaso zituztelako. Zehazkiago adierazita, gehikuntzarik handiena eraikuntzak lortu zuen, hamargarren urtez jarraian %4ko tasa gainditu zuelako, kreditua lortzeko baldintza egokiek, interes tasa errealak oso apalak izateak eta familien errenta erabilgarriaren hazkundeak lagunduta. Merkatutatzen diren zerbitzuek hamarren gutxi batzuk bakarrik murriztu zuten aurreko urtean lortutako

2007ko urteko txostena

gorakada nabarmena, administrazio publikoaren jardunari lotutako zerbitzuak ekonomiaren batez bestea baino askoz gutxiago hazi ziren bitartean. Azkenik, industriak ez zuen aldaketa handirik erakutsi bere ibilbidean eta aurreko ekitaldiko bizitasunari eutsi zion, barne eskaria erritmo onean hazi zelako eta esportazioak aurreko urteetan baino askoz ere gehiago areagotu zirelako.

EAE-KO TAULA MAKROEKONOMIKOA

3. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2002	2003	2004	2005	2006	2007(a)
Barneko azken kontsumoa	2,5	4,1	4,4	3,8	3,8	3,8
Familien kontsumoko gastua	2,5	3,7	4,6	4,1	3,7	3,4
Herri administrazioen kontsumoa	2,5	5,8	3,7	2,7	4,3	5,5
Kapital eraketa gordina	5,0	5,1	7,5	6,1	5,9	5,5
Barne eskaria	3,2	4,4	5,2	4,4	4,4	4,4
Kanpo saldoaren ekarpena(*)	-0,9	-1,4	-1,7	-0,7	-0,2	-0,5
Esportazioak	-0,9	-0,8	4,8	5,1	6,2	7,6
Inportazioak	0,3	1,3	7,3	5,8	6,1	7,6
BPG (m.p.)	2,4	3,1	3,7	4,0	4,4	4,1
Lehen arloa	-0,7	-6,1	31,3	-13,8	-4,4	9,8
Industria	1,1	1,2	2,9	4,9	4,2	4,0
Eraikuntza	5,2	4,9	4,4	4,7	4,2	4,6
Zerbitzuak	2,7	3,3	3,3	3,5	4,5	4,2
Merkatuko zerbitzuak	2,7	3,6	3,5	3,5	4,8	4,5
Merkatukoak ez diren zerbitzuak	2,6	1,7	2,0	3,4	3,3	2,6
Balio erantsi gordina	2,3	2,7	3,6	3,8	4,3	4,2
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	2,6	7,6	4,5	5,0	4,8	3,4

(a) Aurrerapena.

(*) BPGren hazkundeari eginiko ekarpena ehuneko puntutan.

Iturria: Eustat.

Ekonomiaren ekoizpenean lortutako emaitza on horiekin batera enplegu sorreraren beste gorakada bat gauzatu zen, aurreko bi urteetan izandakoa baino are handiagoa izan zena. Lehenengo aldiz bere historian, Eustatek osatzen dituen kontu ekonomikoetan milioi bat lanpostu baino gehiago estimatu ziren. Enplegu sorrera garrantzitsu horren ondorioz, langabezia tasa berriro jaitsi zen, urteko batez bestean %3,3an kokatu zelarik,hots, enplegu

betetzat jotzen den maila batean. Aldi berean, ekoizkortasun irabazi garrantzitsuak lortu ziren, aurreko urteetako balioetara iritsi ez ziren arren.

EAE-KO EKONOMIAREN BESTE ALDAGAI NAGUSI ZENBAIT

4. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2002	2003	2004	2005	2006	2007
Biztanleko BPG EAPan neurtuta (UE27=100)	123,8	125,0	126,5	130,8	135,3	139,8
BPG erreala merkatu prezioetan	2,4	3,1	3,7	4,0	4,4	4,1
Enplegua	2,2	2,5	2,8	2,2	2,2	2,8
Lan faktorearen itxurazko ekoizkortasuna	0,2	0,6	0,9	1,7	2,1	1,3
BPG nominala merkatu prezioetan	5,2	6,5	8,3	7,5	7,8	6,7
BPGren deflatoea	2,8	3,3	4,4	3,4	3,3	2,5
KPI (urteko batez besteak)	3,7	2,8	3,0	3,3	3,4	2,8
Soldata igoera	3,9	4,4	4,0	4,5	4,9	4,2
Langabezia tasa:	8,3	8,6	7,8	5,7	4,1	3,3

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten, Eurostaten, INEren eta Lan Harremanen Kontseiluaren datuetan oinarrituta.

Dagoeneko aurreratua izan denez, inflazioaren tentsioak urte amaieran baino ez ziren agertu. Izan ere, hala BPGren deflatoea nola kontsumoko prezioen igoera, urteko batez bestean neurtuta, aurreko urteetakoak baino askoz ere apalagoak izan ziren. Horren ondorioz, lan hitzarmenetan adostutako soldata igoerak aurreko bi urteetakoak baino txikiagoak izan ziren. Hala ere, kontsumoko prezioen indizeak 2007ko azken hilabeteetan izan zuen gorakadak abenduko urte arteko tasa –lan hitzarmenak negoziatzeko orduan gehien erabiltzen den erreferentzia baita- urteko batez bestea baino askoz handiagoa izan zedila eragin zuen, eta horrek ondorioak izango ditu salbagoardiako klausuletan eta 2008 urteko negoziazioan.

Etorkizun hurbilari dagokionez, eta bereziki 2009. urteari begira, ekonomiaren aurreikuspenak egiten dituzten nazioarteko erakunde nagusiek oso nabarmen beheratu dituzte munduko ekonomiarentzako eta ekonomia aurreratuentzako estimazioak, halako intentsitatez ezen erakunde batek baino gehiagok atzeraldia iragartzen baitute Europako herrialde nagusientzat, Japoniarentzat eta AEBentzat. Ezin bestela izan eta garapen bidean dauden herrialdeak ere

2007ko urteko txostena

kaltetuta aterako dira bultzada apalagoarengatik, garatutako herrialdeekin merkataritzako lotura estuak dituztelako.

Testuinguru horretan, Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egin duen aurreikuspenak adierazten du 2007. urtean hasi zen moteltzeko aldiak jarraipena izango duela 2008-2011 epealdiaren zati handi batean ere. Hain zuzen ere, barne produktu gordina 2008an %2,2 eta 2009an %0,5 haziko dela urteko batez bestean aurreratzen du. Urte horretatik aurrera, susperraldi arina aurreikusten da, laurogeita hamarretako lehen erdian bizi zena ez bezalakoa. Izan ere, garai hartan BPGk %-0,8ko tasa jaso zuen 1993an, baina hurrengo urtean %3,3ko susperraldi azkarra ezagutu zuen. Oraingo honetan moteltzeko joera mundu osoan gertatzen ari denez, susperraldia kanpo arlotik iristea zailagoa izango da, EAEko produktuak erosten dituzten herrialdeetako barne eskariak ahul egongo direlako. 2011. urtera itxaron beharko da %1,5aren inguruko hazkunde tasa bat lortzeko.

Motelaldi sakonak barne eskariaren osagai guztien bilakaera baldintzatuko du, aurreko urteetakoak baino balio apalagoak jasoko baitituzte. Hain zuzen ere, kapital eraketa gordinak jaitsiera jasoko du 2009. urtearen zati handi batean, etxegintzaren arazoek kaltetuta, nahiz eta obra publikoak bultzada nabarmena izango duen. Kontsumo pribatuak aldakuntza tasa murriztuko du eta geldotasunera eramango, kontsumitzaileen konfiantza faltarengatik eta 2009. urterako aurreratzen zen enplegu galerarengatik. Portaera ahul honetatik aldentzen den osagai bakarra kontsumo publikoa da, bere gastua areagotuko baitu, arlo pribatuaren ahultasuna neurri batean konpentsatzeko.

Ekoizpen arloen ikuspegitik, 2009. urtean industriak utzi egingo dio BPGren gehikuntzari ekarpen positiborik egiteari eta eraikuntzak balio erantsia murrizteko joera areagotuko du. Bere balio erantsia nabarmen igoko duen arlo bakarra zerbitzuak izango dira, baina ez dute lortuko aurreko urteetako mailan kokatzea. Are gehiago, merkaturatzen diren zerbitzuek nabarrituko dituzte kontsumo pribatuaren ahultasuna eta zailtasun larriei aurre egin beharko dien ekoizpen jardueraren ondorioak. Horregatik guztiarengatik, balio erantsia azken hamabost urteko eritmorik txikienean haziko da.

Ekonomiaren hazkundera apalagoa izango denez, lan merkatuak ere bizitasuna galduko du eta 2009. urtean lanpostuak galduko dira, lehenengo aldiz 1993. urtetik. Langileen kopurua jaitsiko denez, langabezia tasak gora egingo du, lehenengo urtean puntu bat erdi gorago egongo dela estimatu baita.

EAE-RAKO EKONOMIA AURREIKUSPENA

5. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2006	2007	2008	2009	2010	2011
BPG erreala	4,4	4,1	2,2	0,5	0,9	1,4
BPGren deflatoea	3,3	2,6	3,8	2,1	1,8	2,0
Enplegua	2,2	2,8	0,9	-0,7	-0,2	0,4
Langabezia tasa	4,1	3,3	3,7	5,1	5,0	4,7

Iturria: Eustat eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Azkenik, prezioek beren gehikuntzak gutxituko dituzte, eskari orokorra ahulduko den heinean. Eskariaren presiorik eza are nabarmenagoa izango da lehengaien salneurrietan (elikagaiak, energia, metalak eta mineralak), baina baita landutako ekoizkintan eta zerbitzuetan ere, beren azken prezioak gutxitu beharko dituztelako, kasu batzuetan jarduerari eusteko zailtasunengatik eta, beste batzuetan, biltegirotutako izakinei irteera ematearren.

1 EAE-KO EKONOMIAREN TESTUINGURUA

Munduko ekonomiaren bilakaera

2007. urtean, munduko ekonomiaren jarduera sendoa eta bizia izan zen berriro. Beraz, %5,0ko hazkundera lortu zuen, 2006an jasotako emaitza baino hamarren bat bakarrik txikiagoa delarik eta azken 27 urteetako emaitzarik onenetarikoa bilduz, Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) argitaratutako datuen arabera. Hazkunde horri esker, munduko ekonomiak inoizko etaparik emankorrena osatu du, hasiera 2001. urtean izan zuena eta epealdi osorako batez bestez %4,0ko gehikuntza tasa jaso duena.

EKONOMIAREN ALDAGAI NAGUSIAK

6. TAULA


	BPG erreala		Inflazioa		Langabezia tasa	
	2006	2007	2006	2007	2006	2007
Mundua	5,1	5,0	3,6	4,0	---	---
Txina	11,6	11,9	1,5	4,8	---	---
ELGE	3,1	2,7	3,9	4,5	6,0	5,6
AEB	2,8	2,0	3,2	2,9	4,6	4,6
Japonia	2,4	2,1	0,3	0,0	4,1	3,9
EB 27	3,1	2,9	2,3	2,4	8,2	7,1
Alemania	3,0	2,5	1,8	2,3	9,8	8,4
Frantzia	2,2	2,2	1,9	1,6	9,2	8,3
Erresuma Batua	2,8	3,0	2,3	2,3	5,4	5,3
Italia	1,8	1,5	2,2	2,0	6,8	6,2
Espainia	3,9	3,7	3,6	2,8	8,5	8,3
Garapen bidean dauden herrialdeak	7,9	8,0	5,4	6,4	---	---
Afrika	6,1	6,3	6,3	6,2	---	---
Asia	9,9	10,0	4,2	5,4	---	---
Hego eta erdialdeko Amerika	5,5	5,6	5,3	5,4	---	---
Trantsizioan dauden herrialdeak	6,7	5,7	5,4	5,6	---	---

Iturria: ELGE, NDF, Txinako National Bureau of Statistics eta Eurostat.

Hazkunde garrantzitsu horren atzean bereziki garapen bidean dauden herrialdeen egoera sendoa dago, hazkunde osoaren ia %70 beraien ekarpenari esker lortu baitzen. Are gehiago, neurri batean ekonomia aurreratuen erritmo galera konpentsatu zuten. Izan ere, herrialde garatuak finantza merkatuetako zurrunbiloak eragindako ziurgabetasuna nozitu zuten, AEBetako subprime hipoteken krisiak, oinarritzko ekoizkinen etengabeko garestitzeak eta interes tasen gorakadak bultzatua.

Barne produktu gordina
Urte arteko aldakuntza tasak

3. irudia



Iturria: NDF eta Eurostat..

2007ko urteko txostena

Ekonomia aurreratuak, beraz, %2,6 hazi ziren, 2006an baino lau hamarren gutxiago, baina azken urteetan izandako emaitzetatik asko alden du gabe. Ekonomia eremu horretako herrialde ia guztietan nabaria zen hazkundera moteltzeko joera hori, baina horrek ez du esan nahi lortutako hazkunde tasak hutsalak izan zirenik. Hain zuzen ere, Europar Batasunak %2,9ko gehikuntza tasa lortu zuen, Erresuma Batuaren eta Espainiaren bultzadari eta Frantziaren eta Alemaniaren egonkortasunari esker. Estatubatuar ekonomiak beste eremuek baino gehiago nabaritu zituen ezegonkortasunaren etapa eta etxegintzaren doikuntza sakona. Hori dela eta %2,0ra murriztu zuen bere hazkunde tasa. Japoniari, ordea, kalte gutxiago ekarri zion egoerak eta %2,1 areagotu zuen bere BPG, aurreko urteko emaitza hiru hamarren altuagoa bakarrik izan zelarik.

Garapen bidean dauden herrialdeen artean, Txinak eta Indiak eremuko hazkundera ez ezik, mundu osoko ekonomia ere sustatu zuten. Txinak bizitasuna areagotu zuen berritoki eta %11,4 hazi zen, 2006an baino hiru hamarren gehiago. Emaitza horri esker, bost urtez jarraian areagotu du %10etik gorako bere gehikuntza tasa, eta azken hamalau urteko hazkunderik gorena lortu. Indiak ere bilakaera eredu-garria erakutsi zuen eta %9,3 hazi zen, aurreko urtean baino puntu erdi bat gutxiago, baina azken hogeita bost urteko bigarren hazkunderik altuena izan da. Bi herrialde horiek gehi Errusiak, 1993. urtetik inoizko tasarik altuena jaso baitzuen %8,1eko gehikuntzari esker, munduko hazkunderaren erdia eragin zuten.

Petrolioaren eta beste lehengaien goranzko joera iraunkorrak presioa jarri zuen inflazio orokorrean, kontsumoko prezioen bitartez neurtuta, eta garatutako herrialde gehienetan egonkor eta kontrolpean mantendu bazen ere, garapen bidean dauden ekonomia nagusietan nabarmen areagotu zen.

Munduko ekonomiak 2007. urtean zehar hazteko ahalmen izugarria erakutsi zuen arren, 2008rako eta 2009rako aurreikuspenak ez dira horren baikorrak. Ekonomia garatuen moteltzeak, etxebizitzaren merkatuaren hozteak eta lehengaien garestitzeak etorkizun motelagoa iradokitzen dute munduko ekonomiarentzat. Zehazkiago adierazita, NDFk urriko txostenean %3,9ko tasa iragarri zuen 2008 urterako munduko hazkunderarentzat, baina hurrengo hilabeteetan tasa hori %3,7ra jaitsi zuen, urtarrilean argitaratutako aurreikuspenetan estimatu zuena lau hamarrenetan beheratuz. Apaltzeko joera hori biziagoa izango da herrialde garatuetan garatu gabeetan baino, azken hauetako hazkunde tasak erritmoa leunki galgatzea baino ez baita espero.

Analisisa herrialdeka

AEBetan, zenbait urtez ekonomia jarduerak hazkunde sendoa lortu ondoren, barne produktu gordina %2,0 hazi zen 2007. urtean. Tasa horrek zortzi hamarreneko moteltzea adierazten du 2006ko emaitzaren aldean eta azken bost urteko zenbatekorik txikiena da. Moteltzearen atzean etxebizitzaren merkatuaren bilakaera ezkorragoa dago, etxegintzan inbertitutakoaren beherakada nabarmena, gutxienez azken hamabost urteko handiena, eragin duena. Horrek indarra kendu zion barne eskariari, nahiz eta kontsumo pribatuak eta publikoak aurreikusita zegoen baino sendotasun handiagoa erakutsi zuten, azken urteetan izandako hazkunde mailei eutsiz. Kanpo saldoak bilakaera hobea erakutsi zuen eta puntu erdiaren inguruko ekarpena egin zion BPGren gehikuntzari, ia hamabost urtez hamarrenak kentzen egon ondoren. Joera aldaketa esportazioen bizitasunen aldetik iritsi zen, dolarraren ahultasunaz baliatzen jakin zutelako. Inportazioak, ordea, ahuldu ziren, laugarren urtez jarraian.

Estatubatuar ekonomian kezka sortu duen beste alderdi bat prezioen bilakaera da. Egia da 2007. urtean prezioen batez besteko hazkundera %2,9 baino ez zela izan, 2006an KPI indizeak markatu zuena baino hiru hamarren txikiagoa delarik, baina abenduan indize hori %4,1era igo zen, azken 17 urteko tasarik gorena delarik. Prezioen gorakadak, ordainsarien hazkunde ezak eta higiezinaren krisi luzeak estagflazio aroa (geldialdia gehi inflazioa) datorrela mehatxu egiten dute. Badirudi finantza krisiak ez zuela inolako eragin kaltegarriarik izan lan merkatuan, zeren eta langabezia tasa egonkor mantendu baitzen %4,6an, hamarkada hasi zenetik emaitza apalena baita.

Japonian, ekonomia jardueraren egitura aldatu egin zen. Lau urtez hazkunderaren oinarrian esportazioak eta inbertsioa aurkitu ondoren, 2007. urtean kanpo arloa eta kontsumo publikoa izan ziren ekonomia bultzatu zuten aldagaiak. Kontsumo pribatua espero zena baino gutxiago hazi zen berriro eta 2006an lortutako tasa finkatu ordez, hazkunde hutsala erakutsi zuen, azken hamar urteetan izan zuela gogoratzen zuena. Beste aldetik, inbertsioak behera egin zuen tasa negatiboetara iritsi arte, etxebizitzaren alorrean ezarritako arau berrien ondorioz. Garapen bidean dauden Asiako herrialdeetatik hurbil egoteak eta beraien kanpo eskariak sendoak izateak onurak ekarri zizkieten Japoniako esportazioei, areagotu baitziren. Are gehiago, inportazioek berriro galdu zuten indarra, laugarren urtez jarraian, eta horren ondorioz kanpo saldoak herrialdearen ekonomia sustatu zuen.

2007ko urteko txostena

Dagoeneko sei urtez ahalegin da japoniar ekonomia suspertzen eta hazteko oinarri sendoak jartzen. Beste aldetik, inflazioa, herrialde hartan konpondu gabe duten beste arazo larri bat baita, berriro jaitsi zen. Zorionez, deflazioa atzean geratu da eta salneurriak igo egin ziren. Azkenik, langabezia tasak bere seigarren beherakada jarraitua kateatu zuen eta 1998. urteko mailara itzuli zen.

Txinak, berriz, 1994. urtetik aurrera inoiz lortu duen hazkunderik gorena jaso zuen 2007an, %11,9ko tasari esker, aurreko urtekoa hiru hamarrenetan gaindituz. Gehikuntza horrek munduko laugarren potentzia gisa jarri zuen Txina, AEBen, Japoniaren eta gutxigatik Alemaniaren atzean, 2005ean Frantzia eta Erresuma Batua aurreratu ondoren. BPGren batez besteko hazkundera ia %9,9 izan da 1978 urtetik, hots, ekonomia zabaltzeko prozesuari ekin ziotenetik. Txinatar ekonomiaren gorakada horrek aurreikuspen guztiak gainditu zituen eta beste urtebete batez agerian utzi du bertako gobernuak azken urteotan ezarri dituen kontroleko politiken eraginkortasuna zalantzagarrria dela. Hazkunderaren oinarri nagusiak kanpo arloaren sendotasuna, aktibo finkoetan eginiko inbertsio erraldoia eta, neurri txikiagoan, kontsumo pribatua izan dira. Lan merkatuak bilakaera ona erakutsi zuen 2007an ere eta hirietako langabezia tasa %4,0ra jaitsi zen. Inflazioak, berriz, goranzko bilakaera erakutsi zuen urte osoan zehar eta urteko batez bestean %4,8an kokatu zen arren, hilabete batzuetan %6tik gora igo zen.


Europar Batasunak oinarri sendoak zituela erakutsi zuen berriro. Kontinente zaharrak barne eskari biziari eutsi zion eta garatzen ari diren herrialdeen jarduerak europar esportazioak areagotu zituen. Halaber, lan merkatuak langabezia tasa murrizten jarraitu zuen. Aurreko guztiaren ondorioz, eremu honek, bigarren urtez jarraian, %3aren inguruko hazkundera lortu zuen, %2,9 hain zuzen ere, hamarkada hasi zenetik altuenetarikoa delarik. Hazkunde horren oinarri nagusia barne eskariaren sendotasuna izan zen berriro, inbertsioaren bizitasunari esker, indar handiz areagotu baitzen, eta kontsumoaren egonkortasunari esker, bai kontsumo publikoarena bai pribatuarena. Euroak balio asko irabazi zuen arren, esportazioen bilakaera positiboa izan zen. Aurreko hiru urteetan baino zertxobait gutxiago hazi ziren arren, inportazioak ere tasa apalagoan gehitu ziren. Horren ondorioz, kanpo saldoak ekarpen hutsala egin zion BPGren hazkunderari.

Inflazioa egonkor eta tasa txikietan mantendu zen, EBZk ezarritako helburutik oso hurbil. Langabezia tasa, berriz, gutxitzeko joerari eutsi zion eta berriro egin zuen behera, 2000. urtetik aurrera jaso den mailarik apalenean kokaturik.


BPGren bilakaera zenbait herrialdetan
Urte arteko aldakuntza tasak

4. irudia


Frantzia




Alemania




Erresuma Batua




Japonia



India



Txina



Iturria: NDF, Txinako National Bureau of Statistics eta Eurostat.

2007ko urteko txostena

Alemaniak 2006an lortu zuen jarduera erritmo onari eutsi zion, aurreko bost urtean gehikuntza tasa oso txikiak jaso eta gero. Hain zuzen ere, 2007an bertako BPG %2,5 hazi zen, aurreko urtean baino bost hamarren gutxiago, baina 2000. urtetik aurrera emaitza altuenetarikoa delarik. Moteltzearen arrazoia kontsumo pribatuaren erritmo galera izan zen, BEZ zerga %16tik %19ra igo izanaren ondorioz. Hala ere, kontsumo pribatuaren portaera apala inbertsioaren sendotasunak, bereziki makinerian eta ekipamenduan eginikoak, eta kanpo arloak konpentsatu zuten, esportazioek, oraingoz, ez baitzuten gehiegi nozitu euroaren balio irabaziaren ondorioa. Langabezia tasa hirugarren urtez segidan jaitsi zen eta 2002. urteko mailara itzuli. Kontsumoko prezioen tasa EBZk ezarritako mugatik zertxobait gorago kokatu zen.

Frantziak ekonomiaren bilakaera sustraitzeko oinarri sendoak finkatu zituela ematen zuen. Kontsumo pribatuak eta inbertsioak bizitasun handia erakutsi zuten eta aurreko urtean baino hamarren bat gehiago hazi ziren. Hala eta guztiz ere, kanpo arloak ez zuen horrelako bilakaera positiborik erakutsi. Hala inportazioak nola esportazioak gutxiago hazi ziren, eta azken hauek gehiago murriztu zirenez kanpo saldoak berriro kendu zizkion hamarren batzuk hazkundeari. Aurrekoaren ondorioz, herrialdea %2,2 hazi zen eta zenbait urtez etengabeko gorabeherak jaso ondoren jarduera tasa egonkortzeko bidean dagoela dirudi. Inflazioak kontrolpean jarraitu zuen eta hiru hamarren gutxitu zen, %1,6ra, Europar Batasuneko baliorik txikienetakoa delarik. Azkenik, lan merkatuak langabezia tasa leunki baina etengabe murrizteko bideari eutsi zion eta %8,3ra jaitsarazi zuen, 2006an izandako tasa baino bi hamarren beherago eta 2001etik inoiz izan duten mailarik txikiena lortuz.

Erresuma Batuak bizitasun harrigarria erakutsi zuen eta Europar Batasuneko herrialdeen artean urte amaieran hazkunde tasa biziagotu zuen bakarrenetarikoa izan zen. 2005eko makalaldi garrantzitsuaren ondoren, 2006an hasitako susperraldia sendotuta geratu zen 2007an, lortutako hazkundera, %3,0, aurreko urtekoa baino bi hamarren handiagoa izan zelako. Kontsumo pribatuaren eta inbertsioaren sendotasunari esker barne eskariak erakutsi zuen bilakaera onak kanpo arloak kendu zituen hamarrenak konpentsatu zituen. Alde okerrean, inportazioak eta esportazioak kokatu ziren, nabarmen murriztu zirelako eta tasa negatibotan amaitu zirelako (1991. urtetik ez zen halakorik gertatu), euroaren balio irabaziak bertako ekoizkinei lehiakortasuna galarazi zielako. Lan merkatuak 1993. urtean hasi zuen langabezia murrizteko joera, 2006an bakarrik eten baitzen, berreskuratu zuen eta %5,3ra murriztu zuen langabezia tasa. Azkenik, prezioek norabide kontrajarria hartu zuten. Urteko batez bestean, tasa egonkorra eta aurreko urtekoa bezalakoa jaso zuen arren, urtean zehar salneurriek goranzko norabidea hartu zuten eta %3tik gorako igoerak izan zituzten.

Italiako ekonomiak, berriz, ezin izan zuen hazkundera sustatu eta hamargarren urtez jarraian Europako batez bestea baino gutxiago hazi zen. 2006. urtean gehikuntza tasa garrantzitsua lortu zuen arren, 2007an ez zen gai izan ekonomiaren jarduera sustraitzeko. Inbertsioa bat-batean moteldu zen eta kontsumo pribatuaren zein publikoaren gehikuntza ahulek ezin izan zuten beherakada hori konpentsatu. Beraz, barne eskariak ekarpen txikiagoa egin zion BPGren hazkunderari. Ekitaldi horrekin, dagoeneko zazpitan erakutsi du italiar ekonomiak norabide gorabeheratsu bat, zeinean etengabe tartekatzen baitira gehikuntzak eta jaitsierak. Datu onenak lan merkatuan eta prezioetan lortu ziren, bi eremu horietan bilakaera positiboak hauteman zirelako. Langabezia tasa 1983tik aurrera inoizko mailarik txikienean kokatu zen eta KPI indizea bi hamarrenetan jaitsi zen, %2,0an kokatu arte, 1998ko maila berean.

Espainiako ekonomia

Espainiako ekonomiak 14 urteko hazkunde etengabea lortu du, Europako batez bestearen gaitetiko tasak eskuratuta. Oraingo ziklo hedakorra 1993ko amaieran hasi zen, Moneta Batasunean parte hartzeko aukerarekin. Izan ere, 2007. urtean hamarkada aparta bete zuen espainiar ekonomiak, azken hamar urteetan, salbuespen bakarra 2002. urtea izan zelarik, %3,0 baino gehiago hazi zelako. Hala ere, 2007ko ezaugarrien artean azpimarratu behar dira 2002tik erakusten zuen goranzko joera irauli izana eta hazteko ereduaren birmoldaketa.

Zehazkiago adierazita, kontsumo pribatua eta inbertsioa apaldu ziren, neurri batean azken urteetako hedapena lagundu zuten moneta eta finantza baldintza onak okertu zirelako. Hala eta guztiz ere, erritmo garrantzitsuan hazten jarraitu zuten eta barne eskariak 4,4 puntu ekarri zizkion barne produktu gordinaren hazkunderari. Horri erantsi behar zaio kanpo eskariaren portaera hobea, hazkunderari zortzi hamarren bakarrik kendu zizkiolako, esportazioak areagotu zirelako eta inportazioak gutxiago hazi zirelako. Eginiko ekarpen negatibo hori 2002. urtetik inoiz jaso duen txikiena da. Aurreko guztiaren ondorioz, ekonomia jarduera %3,7 areagotu zen 2007. urtean, aurreko urtean lortutakoa baino bi hamarren gutxiago bakarrik delarik.

Eskaintzaren ikuspegitik, adar guztiek gehikuntza tasa positiboak jaso zituzten. Nekazaritzak eta arrantzak zein industriak 2006an lortutako aurrerapenak sustraitu zituzten, eta energiaren adarrak gorakada eskuratu zuen aurreko urteko beherakadaren ondoren. Eraikuntzak jarduera maila altuari eutsi zion, baina azken hamar urteko gehikuntza tasarik txikiena jasota.

2007ko urteko txostena

Egonkortasuneko irudia zerbitzuek eskaini zuten, hirugarren urtez jarraian %4,0tik gorako gehikuntza tasa lortu zutelako.

ESTATUKO TAULA MAKROEKONOMIKOA

7. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2002	2003	2004	2005	2006 (B)	2007(A)
Azken kontsumoko gastua	3,2	3,4	4,7	4,5	4,1	3,8
-Familien gastua kontsumoan	2,8	2,9	4,2	4,2	3,9	3,4
-Administrazioaren gastua kontsumoan	4,5	4,8	6,3	5,5	4,6	4,9
Kapital eraketa gordina	3,4	5,2	5,2	6,5	7,7	5,0
-Kapital finkoaren eraketa gordina	3,4	5,9	5,1	7,0	7,1	5,3
Nazio eskaria (*)	3,3	3,9	4,9	5,3	5,4	4,4
Esportazioak	2,0	3,7	4,2	2,5	6,7	4,9
Inportazioak	3,7	6,2	9,6	7,7	10,3	6,2
BPG	2,7	3,1	3,3	3,6	3,9	3,7
Nekazaritza eta arrantza	0,4	-0,5	-2,3	-8,2	2,5	3,0
Energia	0,8	5,4	1,9	1,2	-0,1	0,8
Industria	-0,1	1,2	0,7	1,1	1,9	2,8
Eraikuntza	6,3	4,4	5,1	5,2	5,0	3,5
Zerbitzuak	3,0	3,0	3,8	4,3	4,4	4,6
Produktuen gaineko zerga garbiak	4,3	6,6	4,4	6,1	3,7	0,7
Gogoratzekoak:						
-Kontsumo prezioen indizea	3,6	3,1	3,1	3,4	3,6	2,8
-Enplegua	2,3	2,4	2,7	3,2	3,2	3,0
-Administrazio publikoaren defizita (BPGrena)	-0,3	0,0	-0,2	1,1	1,8	2,2

(*) BPGren hazkundeari eginiko ekarpena.

(B) Behin-behinekoa (A) Aurrerapena.

Iturria: INE eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioa.

Enpleguari dagokionez, ekonomiaren bizitasuna lan merkatura ere hedatu zen. 2007. urtean sortutako enplegua, lanaldi osoko lanpostu baliokidetan neurtuta, %3,0 izan zen, aurreko urteko tasa baino bi hamarren txikiagoa delarik, baina oraindik hamarkadaren hasieran lortutakoak baino askoz ere handiagoa delarik. Enplegu sorrerari esker, 550.000 lanpostu gehiago zeuden espainiar ekonomian, bereziki eraikuntzan eta, neurri txikiagoan, zerbitzuetan; gainontzeko arloetan lanpostuak galdu ziren bitartean.

Beste aldetik, eta biztanleria aktiboaren gaineko inkestak argitaratu dituen datuen arabera, langabezia tasa %8,6an kokatu zen, 1979tik inoizko bigarren txikiena delarik. Halaber, kontratu mugagabeen kopuruak izan zuen gorakada azpimarratu behar da, 760.800 lagunetara iritsi baitzen, aldi baterako langileen kopurua 350.400 pertsonatan murriztu zen bitartean. Bilakaera horien ondorioz, aldibaterakotasun tasa %30,92ra jaitsi zen, 1990. urtetik inoizko apalena baita.

Prezioen bilakaerari dagokionez, kontsumoko prezioen indize harmonizatua %2,8an kokatu zen 2007an, aurreko urteko tasa baino zortzi hamarren txikiagoa baita eta 1999. urtetik jasotako apalena. Balio horri esker, Eurogunearekiko inflazio tartea zazpi hamarretara mugatu zen, 2001etik jaso den emaitza onena baita. Izan ere, urte horretan bi lurraldeen arteko inflazio tartea lau hamarrenekoa izan zen.

Administrazio publikoek, hirugarren urtez jarraian, superabita lortu zuten 2007an, aurreko urtekoa baino %33,2 gehiago izan zelarik. Guztira 23.368 milioi euroko superabita metatu zen, BPGren %2,23 dena. Azpimarratu behar da Eurogunean bost bakarrik izan direla saldo positiboa lortu zuten herrialdeak, eta horien artean Espainia bigarren superabitik handiena lortu zuela, Finlandiaren ondoren.

2 EAE-KO EKONOMIAREN ANALISIA

2.1 Ekoizpen arloak

Sarrera

2007. urtea inflexio aroa izan zen Araba, Bizkai eta Gipuzkoako ekonomiaren bilakaeran. Bizitasun handiko zenbait urte igaro ondoren, ekonomiaren hazkundera moteltzeko zantzuak erakutsi zituen urteko bigarren seihilekoan. Hori horrela izanda, urte osorako estimatu den batez besteko hazkunde tasa %4,1era iritsi zen, oraindik oso garrantzitsua dena, baina hiruhilekoz hiruhileko erritmoa galtzen ibili zena. Unean uneko terminoetan, 2007ko hazkundera %6,7 izan zen.

EAEko ekonomiak izan zuen moteltze arinaren atzean, familientzat eta enpresentzat zuzendutako finantzazio baldintzak gogortu izana dago, interes tasa altuagoek eta 2007ko udan hasitako finantza krisiak eraginda. Urte horretan, arrazoi horiek ez zuten kalte handirik egin EAEko ekonomian, baina lehen ondorioak hauteman ziren ekoizpen adarretan, bereziki eraikuntzan eta etxegintzarekin lotura zuzena duten jardueretan.

EKONOMIA ARLOEN ALDAGAI NAGUSIAK

8. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	BEG bolumen indizea		Enplegua		Ekoizkortasuna	
	2006	2007	2006	2007	2006	2007
Lehen arloa	-4,4	9,8	-3,5	-4,0	-0,9	13,8
Industria	4,2	4,0	0,5	3,3	3,7	0,7
Eraikuntza	4,2	4,6	3,4	1,1	0,8	3,5
Zerbitzuak	4,5	4,2	3,1	3,2	1,4	1,0
Guztira	4,4	4,1	2,2	2,8	2,2	1,3

Iturria: Eustat.

Eskaintzaren ikuspegitik, ekoizpen arlo guztiek, inolako salbuespenik gabe, hazkunde tasa positiboak aurkeztu zituzten. Lehen arloa %9,8 hazi zen urteko batez bestean 2007an eta atzean utzi zituen aurreko bi urteetako beherakadak. Industriari dagokionez, %4,0ko hazkunde tasa eskuratu zuen, bizitasun handikoa, barne eskariaren bultzada sendoari eta esportazioen bilakaera positiboari esker. Eraikuntzak, berriz, ekonomiaren sektore hedakorrena izan zen, baina urte amaieran moteltzeko joera garbia erakutsi zuen. Neurri batean, eraikuntzaren okertzea zerbitzuetako hazkunde indartsuak konpentsatu zuen, 2007. urtean %4,2an kokatu baitzuen bere urte arteko gehikuntza tasa.

Lehen arloa

Nekazaritza eta arrantza arloko balio erantsi gordinak %-8,0ko atzerakada jaso zuen 2007. urtean unean uneko prezioetan, bolumenaren terminoetan %9,8ko gorakada lortu zuelarik, prezioak %16,0aren inguruan jaitsi ziren bitartean.

Nekazaritzaren esparruan, 2007ko gertakari azpimarragarrienak honako hauek izan ziren: ortuarien ekoizpenaren beherakada, tomatearen eta lekaren kanpaina txarraren ondorioz, ardoaren kantitatea eta prezioa bere horretan jarraitu izana, eta zerealen, ortuarien eta loreen garestitzea.

LEHEN ARLOKO ADIERAZLE NAGUSIAK

9. TAULA

Urteko aldakuntza tasak

	BEG bolumen indizea			BEG uneko prezioetan		
	2005	2006	2007	2005	2006	2007
Nekazaritza eta arrantza	-13,8	-4,4	9,8	-5,1	-1,8	-8,0

Iturria: Eustat.

Abeltzaintzaren atalean, behi esnea eta arrautzak garestitu ziren eta esnetarako zein haragitarako behien kopurua gutxitu zen. Beste aldetik, basogintzan, intsinis pinua eta bestelako egurrak mozteko baimenak areagotu ziren, baina intsinis pinuaren salneurriak jaitsiera garrantzitsua izan zuen.

2007ko urteko txostena

Industria

EAEko industriaren balio erantsiak %4,0ko urte arteko hazkundera jaso zuen 2007. urtean, aurreko urteko emaitzaren aldean moteltzeko joera arina erakusten duelarik. Hala eta guztiz ere, gehikuntza tasa horrek agerian uzten du Araba, Bizkai eta Gipuzkoako industria erritmo garrantzitsua garatzen ari dela eta sendo dagoela. Bilakaera hedakor horren oinarriak bertoko barne eskariaren bultzada eta EAEko esportazioak erosten dituzten herrialdeek erakusten duten abagune ona izan dira. Izan ere, industriaren portaera bikaina izan zen 2007. urtean inguruneko ekonomia garatu gehienetan.

INDUSTRIAREN BILAKAERA

10. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	Industriaren balio erantsia						
	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007
EB-27	0,9	-0,1	0,5	3,0	1,4	3,5	3,1
Eurogunea	1,6	0,0	0,2	2,7	1,7	3,6	3,4
Alemania	1,1	-1,4	0,4	4,7	2,7	5,9	5,2
Frantzia	2,1	0,5	1,8	1,1	1,4	0,8	1,6
Erresuma Batua	-1,5	-1,6	-0,7	0,9	-1,2	0,6	0,4
Italia	-0,2	-0,3	-2,7	0,9	-0,4	1,2	0,8
Espainia	3,3	0,0	1,8	0,9	1,1	1,6	2,5
EAE	2,5	1,1	1,2	2,9	4,9	4,2	4,0
AEB (*)	-3,4	-0,1	1,2	2,5	3,3	2,2	1,7
Japonia (*)	-6,8	-1,2	3,0	4,8	1,4	4,5	2,8

(*)Industriaren ekoizpena.


Iturria: Eurostat, Eustat (EAE) eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioa (AEB eta Japonia).

EAEko industriaren balio erantsiak 2007. urtean zehar izan zuen bilakaera aztertzen denean, agerian gelditzen da hiruhilekoak aurrera joan ahala hazkundera tasak gero eta txikiagoak zirela, moteltzeko joera batean murgilduta zegoelarik. Gehikuntza tasa handiena urtearen lehen hiruhilekoan jaso zen eta hortik aurrera erritmoa geldotzeko joera nabarmena izan zen. Joera bera erakutsi zuen EAEko industria produkzioaren indizeak ere. IPIren datuek, ziklo-joera seriean, martxoan jarri zuten hazkundera tasarik gorena, gero urte amaiera arte beheranzko norabidea hartzeko.


Industriaren bilakaera alderatua
Urte arteko aldakuntza tasak

5. irudia


AEB




Europar Batasuna




Alemania




Frantzia



Espainia



EAE




Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten eta Eurostaten datuetan oinarrituta.

2007ko urteko txostena


EAEko industria ekoizpenaren ziklo bilakaera ondasunen helburu ekonomikoaren arabera
Ziko-joera seriaren urteko tasa

6. irudia


Ekipamendurako ondasunak




Bitarteko ondasunak



Kontsumoko ondasunak



Energia



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten eta Eurostaten datuetan oinarrituta.

Ondasunak helburu ekonomikoaren araberako sailkapenak adierazten duenez, IPIren portaera hori orokorra izan zen eta moteltzeko joera, indar handiagoz edo txikiagoz, EAEko talde guztietan hauteman zen. Energiaren eta kontsumorako ondasunen ekoizpenak murrizketa garrantzitsua izan zuten aurreko urteko emaitzen aldean. Ekipamendurako ondasunen produkzioak, berriz, hazkunde tasa bikainari atxiki zion, zenbait urtez bizitasun handiko

emaitzak lortuta. Bitarteko ondasunen ekoizpenak ere hazkunde adierazgarria izan zuen 2007. urtean.

EAE-KO INDUSTRIAREN BALIO ERANTSI GORDINA AZPISEKTOREKA

11. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak.

	2004	2005	2006	2007
Metalezko eta ez-metalezko mineralak	-9,2	-14,0	5,9	4,4
Janari industria	-1,2	8,3	-1,2	-0,9
Ehungintza eta jantzigintza	4,5	-2,8	21,9	2,9
Larrugintza eta zapatagintza	6,4	-21,0	26,0	-14,9
Egurraren industria	-7,3	9,5	13,5	5,7
Papera, edizioa eta arte grafikoak	3,1	6,7	-0,3	11,1
Petrolioaren fintzea	26,0	44,4	3,2	-0,1
Industria kimikoa	-3,0	5,8	2,1	-4,6
Kautxua eta plastikoa	5,8	11,9	-7,9	1,9
Industria ez-metalikoa	-5,9	9,8	7,2	0,4
Metalurgia eta metalezko artikulua	-0,5	-1,1	3,8	7,1
Makineria	5,2	2,9	7,8	6,0
Material elektrikoa	6,6	6,9	6,3	9,3
Garraio materiala	-0,2	-1,5	10,8	1,5
Bestelako manufakturagileak	0,0	4,5	3,3	2,4
Energia elektrikoa gasa eta ura	23,2	13,3	6,1	-1,9
Industria guztira	2,9	4,9	4,2	4,0

Iturria: Eustat.

Autonomia erkidegoko industria adarren bilakaera zehazkiago aztertuta, Eustatek balio erantsiaz argitaratu dituen datuek egiaztatzen dute ekoizpenaren hazkunde handienak metalezko eta ez-metalezko mineralak, material elektrikoak, garraio materialak eta metalikoa ez den industriak lortu zituztela. EAeko industriaren balio erantsiari ekarpen handiena egiten duten adarrek, hots, metalurgia eta metalezko artikulua, eta makineriak, sektorearena baino hazkunde tasa handiagoak lortu zituzten. Aitzitik, bertoko egiturari pisu txikia duten adarrek, hala nola larrugintza eta zapatagintzak, eta janari industriak hazkunde negatiboa izan zuten beren ekoizpenean. Petrolioaren fintzeko adarren balio erantsiak ere behera egin zuen.

2007ko urteko txostena

Bigarren arloari dagozkion beste adierazle batzuek lehenago aipatu den joera hura baieztatu dute. Izan ere, industria giroaren indizeak, industriaren eskari zorroak, eta industriaren erabilera mailak hobekuntza erakutsi zuten 2007. urtean aurreko urteekiko. Bereziki, bilakaera positiboena inbertsioko eta bitarteko ondasunen adarretan gauzatu ziren, kontsumorako ondasunek murrizketa bat jaso zuten bitartean.

Eraikuntza

Eraikuntzaren arloak aurreko urteetako bizitasunari atxiki zion 2007. urtean zehar eta EAEko ekonomian sendotasun handieneko adarra izan zen, %4,6ko urte arteko hazkunde tasa lortuta. Hala eta guztiz ere, ezinbestekoa da arlo horren balio erantsiak urtean zehar erakutsi zuten bilakaera aztertzea. Hiruhilekoak aurrera zihoazen heinean, hazkundeak moteltzeko joera bizia hartu zuen. Zehazkiago adierazita, urteko lehen hilabeteetan %5,3ko hazkunde garrantzitsua lortu zuen, baina urtea amaitu zenean %3,3ra jaitsia zen, hiruhilabeteka argitaratzen den kontabilitatearen arabera. Higiezinaren merkatuak nozitu zuen doikuntzaren hasiera bereziki urteko bigarren hiruhilekoan hauteman zen. Bat-bateko joera aldaketa, batez ere, finantzazio kostuaren gehikuntzak eta etxebizitzaren balioa gutxiago haziko zelako igurikimenak eragin zuten.

ERAIKUNTZA ARLOAREN ADIERAZLE NAGUSIAK

12. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2004	2005	2006	2007
BEG bolumen indizea	4,4	4,7	4,2	4,6
BEG uneko prezioak	10,0	9,4	8,4	8,7
Deflatoea	5,3	4,5	4,1	3,9
Enplegua	4,9	3,7	3,4	1,1
ekoizkortasuna	-0,5	1,0	0,8	3,5
Etxebizitzaren salerosketak	---	22,8	13,0	7,0
Eskainitako etxebizitzak	6,6	7,9	11,8	22,2
Prezioa €/m ²	8,7	11,7	8,9	5,9
Bisatuak. Etxebizitzaren kopurua	-3,0	-6,6	-2,8	4,2

Iturria: Eustat, Etxebizitza Saila (Eusko Jaurlaritza) eta Etxebizitza Ministerioa.

Higiezinaren doikuntza agerian gelditzen da eraikuntza arloaren jarduera adierazlearen bilakaeran. Eskariaren presio txikiagoa Etxebizitza Ministerioak etxebizitzaren salerosketek argitaratzen dituen datuetan ere begi bistan geratu da. 2007. urtean, Araba, Bizkai eta Gipuzkoan 26.573 salerosketa egin ziren. Kopuru horrek %7,0ko urte arteko gehikuntza tasa islatzen du, aurreko urtean lortutakoa baino askoz ere txikiagoa delarik. Beste aldetik, salmentan eta alokairuan eskaintzen diren etxebizitzek Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak emandako datuek %22,2ko gorakada garrantzitsua jaso zuten. Eskariaren eta eskaintzaren arteko doikuntzak prezioen bitarteko beharrezko zuzenketa eragin zuen eta etxebizitzaren metro karratua, eurotan baloratuta, %5,9ra mugatu zuen bere hazkundera 2007. urtean. Higiezinaren merkatuan gauzatu zen oreka aurkitzeko mugimenduak biziagoak izan ziren erabilitako etxebizitzetan berrietan baino.

Aldagaien analisia enpleguan fokatzen bada, estatistika iturri guztiek iradokitzen dute arloa motelduz joan zela. Izan ere, kontu ekonomikoek %1,1ean kokatu zuten eraikuntzaren enpleguak izan zuten hazkundera, aurreko urteko emaitzaren aldean bi puntutik gorako beherakada delarik.

Zerbitzuak

Euskal Autonomia Erkidegoko zerbitzuak zertxobait gutxitu zuten hazkunde tasa 2007. urtean, %4,2an kokatu baitzen. Hori horrela izanda, jarduera adar hori hiru hamarren gutxiago hazi zen aurreko urteko emaitzaren aldean. Azpiatalka aztertuta, bai merkaturatzen diren zerbitzuak bai merkaturaren bitartez esleitzen ez direnak gutxiago hazi ziren, %4,5 eta %2,6, hurrenez hurren.

Analisia merkaturatzen diren zerbitzuetan fokatzen bada, 2007. urterako eskura dauden ekonomia adierazleek narriadura bat erakusten dute aurreko urteko datuen aldean. Merkataritzako adarra aztertuta, Eustatek argitaratzen duen barne merkataritzako indizeak salmentak 2006an baino gutxiago hazi zirela adierazten du. Joera hori berdina gauzatu zen handizkako merkataritzan zein txikizkakoan. Txikizkako merkataritzari dagokionez, jaitsiera adierazgarriena elikagaien salmentan aurkitu zen. Handizkako merkataritzan, beherakada izan ez zuten adar bakarrak makineria eta ekipamendurako ondasunen salmenta, eta elikagaiak ez diren bestelako kontsumo gaiak izan ziren.

2007ko urteko txostena

ZERBITZUEN ARLOAREN ADIERAZLE NAGUSIAK

13. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2004	2005	2006	2007
BEG bolumenen indize kateatua	3,3	3,5	4,5	4,2
BEG uneko prezioak	6,7	6,6	8,2	7,1
Deflatorea	3,4	3,0	3,6	2,8
Enplegua	3,4	3,5	3,1	3,2
Itxurazko ekoizkortasuna	-0,1	0,0	1,4	1,0
Barne merkataritzaren indizea	3,0	0,2	5,6	3,3
Bidaiarien gaualdiak	11,0	5,2	11,5	2,6
Batez besteko egonaldia (egunak)	1,88	1,90	1,92	1,89
Plazen betetze maila (ehunekoa)	46,86	47,63	48,34	46,94

Iturria: Eustat.

Garraioari dagokionez, Hegazkineria Zibileko Zuzendaritza Nagusiak EAEko aireportuez argitaratu dituen datuek erakusten dute 2007. urtean gorakada garrantzitsua lortu zela, hala bidaiarien kopuruan nola salgaien kantitatean, bai Estatukoak bai atzerrikoak. Forondako aireportua penintsulako laugarren tokian dago salgaien merkataritzaren zerrendan. Bestetik, Loiuko aireportuak atzerago gelditu da bidaiarien trafikoan eta zortzigarren tokira jaitsi da penintsulako aireportuen artean. EAetik kanpo ezarri diren kostu txikiko (low-cost) konpainien eraginak ekarri du sailkapenean beherago egotea. Bestelako garraio motei dagokienez, 2007. urtean hazkunde garrantzitsua izan zuen Bilboko metroa erabili zuten bidaiarien kopuruak. Sarea handitu izanak eta geltoki berriak zabaldu izanak %7,6ko hazkundea eragin zuten. Euskotren erabili zuten pertsonen kopurua ere areagotu zen, %0,8ko tasa lortuta.

Araba, Bizkai eta Gipuzkoako turismoaz, Eustatek egiten duen establezimendu turistiko hartzaileen inkestak adar honek 2007. urtean bizitasun apur bat galdu zuela iradokitzen du. Hain zuzen ere, gaualdien kopuruak, etorritako bidaiarienak, batez besteko egonaldiak eta ostatuen betetze mailak moteltzeko joera arina erakutsi zuten. Horiek horrela izanda, batez besteko egonaldia eta plazen betetze maila 1,89 egun eta %46,94 izan ziren, hurrenez hurren, 2007. urteko batez bestean.

Gaualdiei eta etorritako bidaiariei dagokienez, estimatu ziren hazkunde tasek apaltzea iradokitzen dute aurreko urteko emaitzen aldean. Bizitasunaren galera Estatuko gainontzeko

erkidegoetatik etorritako turisten artean gauzatu zen. Aitzitik, atzeritik Araba, Bizkai eta Gipuzkoara etorri ziren turisten kopurua inoizko handiena izan zen, guztira 660.000 bidaiari iritsi zirelako. Igoera handiena Europako iparraldetik, Amerikatik eta Japoniatik etorri zirenen artean gauzatu zen. Turista horien helburu nagusia barnealdeko herriak dira, hiriburuak eta kostaldeko herriak izan beharrean.

ZERBITZUEN BEG-REN BILAKAERA AZPISEKTOREKA. BOLUMENAREN INDIZE KATEATUA 14. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2004	2005	2006	2007
Zerbitzuak guztira	3,3	3,5	4,5	4,2
Merkatuko zerbitzuak	3,5	3,5	4,8	4,5
Merkatukoak ez diren zerbitzuak	2,0	3,4	3,3	2,6
Merkataritza eta konponketa	5,5	2,3	3,9	3,1
Ostalaritza	0,0	3,3	4,0	1,0
Garraioa eta komunikabideak	4,6	3,3	5,0	4,5
Bankuak eta aseguruak	-5,3	3,5	7,4	7,5
Enpresentzako zerbitzuak	6,0	4,7	4,3	5,3
Administrazio Publikoa	1,8	3,2	3,3	1,0
Irakaskuntza	2,7	2,3	3,9	2,5
Osasuna eta gizarte zerbitzuak	2,7	3,9	4,4	5,7
Zerbitzu pertsonalak	3,2	2,1	4,6	3,6
Etxeko zerbitzua	1,5	10,3	4,0	2,8

Iturria: Eustat.

Lan merkatuaren bilakaera aztertuta, enplegua %3,2 areagotu zen EAEko zerbitzuetan. Gizarte Segurantzak 2007. urteko afiliazioaz argitaratu dituen datuen arabera, hazkunde tasarik handienak izan zituzten merkataritzako zerbitzuak honako hauek izan ziren: itsas garraioa, ikerketa eta garapeneko jarduerak, irakaskuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak. Aitzitik, enplegua galdu zuten eta hazkunde tasa negatiboak jaso zituzten adarrak aseguruena eta aireko garraioa izan ziren.

Merkaturatzen ez diren eta arlo publikoak eskaintzen dituen zerbitzuak %2,6 hazi ziren 2007. urtean. Beraz, aurreko urtean baino zazpi hamarren gutxiago hazi ziren. Hala eta guztiz ere, aldagai horren hiruhilabetekako bilakaerak bizkortzeko joera garbia iradokitzen du urteko

2007ko urteko txostena

azken hiruhilabetean, hazkunde tasa %5,5era iritsita. Zerbitzu publiko batzuetan, hala nola osasunean, eginiko doikuntzak dira goranzko joera garrantzitsu horren eragileak.

2.2 Eskaria


Sarrera

EAEko ekonomiaren jarduerak ia inolako aldaketarik gabe atxiki zion aurreko bizitasunari 2007. urtean, barne eskariaren sendotasunari esker. Hala ere, urtean zehar aldaketa bat hauteman zen hazkundearen erritmoan. Finantza merkatuetako murrizketen ondorioz, etxebizitzan eginiko inbertsioa nabarmen gutxitu zen eta familien konfiantza urratu, beraien gastua murriztu zen bitartean. Izan ere, kontsumo pribatua zenbait hamarren gutxiago hazi zen 2007. urtean eta moteltzeko joera hori administrazio publikoen kontsumoak konpentsatu zuen. Horiek horrela izanda, azken kontsumoan eginiko gastua aurreko bi urteetako maila berean kokatu zen, urte arteko hazkunde tasa %3,8an zegoelarik. Kapitaleko eraketa gordina, berriz, barne eskariaren osagaririk dinamikoena izan zen, %5,5eko gorakada lortuta, aurreko urteko emaitza lau hamarrenetan gaindituz.


Eskariaren osagaien hazkundea

7. irudia

Azken kontsumoa




Inbertsioa




Iturria: Eustat.

Barneko eskariaren eta kanpo eskariaren ekarpenak 8. irudia

Barne eskaria



Kanpo eskaria



Iturria: Eustat.

Gastua azken kontsumoan

Azken kontsumoan EAEko familiak egin zuten gastua %3,4 hazi zen urte arteko tasan 2007. urtean, aurreko ekitaldian baino hiru hamarren gutxiago. Urtean zehar erakutsi zuen joera ez zen beti bera. Lehen seihilekoan, agregatuaren gehikuntza tasa %3,7aren inguruan kokatu zen eta moteltzeko joera azken sei hilabeteetan gauzatu zen. Finantza sisteman errotu den konfiantza krisiak, interes tasen igoerak eta prezioen gorakadak familiak kontsumoa apaltzera bultzatu zituzten. Hori horrela izanda, kontsumo pribatuaren hazkundera %3,0 izan zen urteko azken hiruhilekoan.

Familien kontsumoaz argitaratzen diren adierazleen bilakaera aztertuta, horietako gehienetan hazkundera gutxitzeko joera ikusten da. Zehazkiago esanda, barne merkataritzako, txikizkako eta azalera handietako adierazleek familien gastuaren bilakaerak nozitu zuen okertzea eta ekonomiaren etorkizunaz duten iritzi ezkorragoa argi eta garbi islatzen dituzte. Ondasun iraunkorreko kontsumoari dagokionez, turismoen matrikulazioak berriro aldakuntza tasa negatiboak jaso zituen 2007. urtean.

2007ko urteko txostena

ERRENTEN ADIERAZLEEN BILAKAERA

15. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2003	2004	2005	2006	2007
Soldatapekoen ordainketa	6,2	7,9	7,1	6,7	6,8
Urtean indarrean dagoen soldata igoera	4,1	3,9	4,4	4,4	4,2
Enplegua	2,5	2,8	2,2	2,2	2,8
Pentsioen kopurua (*)	0,8	1,1	1,9	3,4	1,6
Batez besteko pentsioa (*)	6,0	6,1	5,3	4,4	4,6
PFEZren diru bilketa	5,1	1,1	11,5	10,3	13,6
Banku arteko interes tasa (urte baterako euriborra)**)	2,3	2,3	2,3	3,4	4,4
KPI	2,8	3,0	3,3	3,4	2,8

(*) Hilabeteko lehen eguneko datuen arabera kalkulaturako urteko batez bestekak.

(**) Hilabeteko batez besteekin osaturako urteko batez bestekak.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten, Lan Harremanen Kontseiluaren, INEren, Lan eta Gizarte Gaien Ministerioaren eta Espainiako Bankuaren datuetan oinarrituta.

Banku sistemak emandako kredituaz Espainiako Bankuak eskaintzen dituen datuetan ere hauteman zen familien gastuak izan zuen atzerakada. Bankuek, aurrezki kutxek eta kreditu kooperatibek emandako kreditua %13,0 areagotu zen 2007. urtean. Tasa hori oso garrantzitsua da, baina 2006an jasotakoa baino zertxobait txikiagoa da. Aberastasun efektuaren galera, lan merkatuaren etorkizunaz dagoen ziurgabetasuna, interes tasak eta finantza krisia erabakigarriak dira kontsumo pribatuaren moteltzea ulertzeko.

EGINDAKO KONTSUMOAREN ADIERAZLEEN BILAKAERA

16. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2003	2004	2005	2006	2007
IPI kontsumo ondasunak. EAE	-0,7	-0,5	-0,2	1,6	0,6
IPI kontsumo ondasunak. Estatua	0,5	0,0	0,2	2,1	1,8
Automobilen matrikulazioa	2,6	3,9	-4,4	-2,8	-0,1
Barne merkataritzaren indizea (prezio finkoak)	1,9	3,0	0,2	5,6	3,3
Txikizkako merkataritzaren indizea (prezio finkoak)	2,8	4,3	1,5	1,8	1,4

Iturria: Eustat, INE eta Trafiko Zuzendaritza Nagusia.

Administrazio publikoetako kontsumoak familien kontsumoaren bizitasun galera konpentsatu zuen eta %5,5 hazi zen, aurreko urtean jasotako %4,3tik oso gora. Horren ondorioz, azken kontsumoan eginiko gastua %3,8an kokatu zen, 2006an bezala.

Kapital eraketa gordina

Kapital eraketa gordinak zertxobait gutxitu zuen bere hazkunde tasa aurreko urtean lortutako emaitzaren aldean, baina oraindik emaitza garrantzitsua, %5,5, izan zuen urteko batez bestean. Inbertsioa osatzen duten bi osagaiak joera ezberdinak erakutsi zituzten. Ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioa barne eskariaren atalik biziena izan zen, baina eraikuntzan eginiko inbertsioak moteltzeko joera garbia jaso zuen, etxebizitzaren balioa gutxiago haziko zelako usteak, finantzazioaren kostua igo izanak eta kreditua lortzeko zailtasunek eraginda. Enpresarien inbertsioak bizitasun handia erakutsi zuen ekipamendurako ondasunetan egin zuten inbertsioari esker, hala makinerian nola garraio materialean. Gehikuntza bizi horren atzean, barne zein kanpo eskarien sendotasuna eta enpresen mozkin handiak daude. Izan ere, 2007. urtean ustiapeneko soberakin garbiaren partaidetza balio erantsiaren banaketan nabarmen handitu zen.

Kapitaleko eraketa gordinaren hazkundera 2007. urterako eskura dauden adierazleen joera hautematen da. Hala ekipamendurako ondasunen barne ekoizpenak nola ondasun mota horretako inportazioek gorakada garrantzitsuak izan zituzten. Zamaketarako ibilgailuen matrikulazioak ere nabarmen areagotu zuen bere urte arteko gehikuntza tasa, 2006ko tasa negatiboa atzean utzita.

KAPITAL ERAKETA GORDINAREN ETA BERE ADIERAZLEEN BILAKAERA

17. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2003	2004	2005	2006	2007
Kapital eraketa gordina (bolumenaren indize kateatua)	5,1	7,5	6,1	5,9	5,5
IPI ekipamendurako ondasunak:	1,4	4,6	6,2	8,0	8,0
- IPI garraio materiala	0,0	5,2	3,7	7,1	9,1
- IPI makineria	0,5	6,3	3,2	5,6	6,4
Ekipamendurako ondasunen inportazioak	-3,8	18,2	3,4	6,1	18,4
Zamaketarako ibilgailuen matrikulazioa	9,5	14,9	12,2	-5,5	5,4

Iturria: Eustat eta Trafiko Zuzendaritza Nagusia.

2007ko urteko txostena

Kanpo saldoa eta lehiakortasuna

Garatutako herrialdeetako barne eskariak ahuldu ziren, finantza merkatuetako zurrunbiloak eta lehengaien garestitze etengabeek kaltetuta. Horren ondorioz, nazioarteko merkataritza garatzeko testuingurua aurreko urteetako baino okerragoa zen. Esportazioen eta inportazioen hazkundera bi puntu luze txikiagoa izan bazen ere, munduko merkataritzaren bilakaera sendoa izaten jarraitu zuen.

SALGAIEN MERKATARITZA 18. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2003	2004	2005	2006	2007(*)
Munduko esportazioak	5,4	9,7	6,4	8,4	5,7
AEB	2,9	8,7	7,1	10,7	7,0
Europar Batasuna 27	1,6	7,2	4,2	7,4	3,2
Asia	13,1	15,3	11,2	13,2	11,3
Txina	---	---	25,0	22,0	19,5
Japonia	9,2	13,5	5,1	9,9	9,1
India	---	---	21,5	11,0	10,5
Munduko inportazioak	6,0	10,4	6,7	7,9	5,7
AEB.	5,5	10,8	5,6	5,6	0,9
Europar Batasuna 27	2,3	6,3	3,9	7,2	3,0
Asia	13,5	14,9	8,1	8,7	8,3
Txina	---	---	11,5	16,5	13,5
Japonia	6,0	6,7	2,4	2,5	0,8
India	---	---	28,5	9,5	13,0

(*)Aurrerapena.

Iturria: Munduko Merkataritza Erakunde.

Nazioarteko merkataritza 2007an gutxiago hazi bazen ere, laurogeietako hamarkadatik munduko merkataritzak, batez beste, izan duen hazkunde tasaren inguruko igoera (%5,3 esportazioetan eta %5,7 inportazioetan) lortu zen. Gehikuntza serie luze horretako salbuespen bakarra 2001. urtea izan zen, urte horretan faktore batzuk aldi berean gertatu baitziren: informaziorako teknologietan eginiko inbertsioak murriztu ziren, inbertsio orokorra ere gelditu

zen, Mendebaleko Europako ekonomia jarduera moteldu zen eta AEBetan irailaren 11ko atentatuak gertatu ziren.

2007. urtean, garapen bidean dauden herrialdeen esportazioak eta inportazioak ekonomia aurreratuenenak baino askoz ere gehiago hazi ziren. Horren ondorioz, garatzen ari diren herrialdeek munduko merkataritzan duten partaidetzak beste marka bat lortu zuen, guztizkoaren %34 bereganatuta. AEBetako inportazioek izan zuten moteltze garrantzitsua garapen bidean dauden herrialdeetako inportazioen sendotasunak konpentsatu zuen, neurri batean, nabarmentzen ari diren ekonomien barne eskari sendoek bultzatuta.

Beste behin, India eta Txina izan ziren, merkataritzaren ikuspegi batetik, hazkunde tasa altuenak lortu zituzten herrialdeak, bietan bi zenbakiko zifrak jaso zirelako. Txinak Asiako merkatarien artean duen nagusigoa areagotu zuen 2007an eta lehenengo aldiz beraren merkataritza bolumentan (esportazioak gehi inportazioak) Japoniako eta Koreako merkataritza bateratua baino gehiago izan zen. Halaber, munduko bigarren esportatzaile handiena izan zen, AEBen aurretik.

Europar Batasuna kaltetuta atera zen munduko moteltzetik eta oraindik esportazio guztietatik ia %40 bereganatzen baditu ere, nabarmen gutxitu zituen esportazioen eta inportazioen hazkunde tasak. Herrialdeka aztertuta, hala ere, oso bestelako bilakaerak aurkitzen dira. Europar Batasuneko kide berriek %10etik gorako hazkundeak lortu zituzten salgaien esportazioetan eta inportazioetan, baina Alemaniak, Herbehereak, Austriak eta Belgikak %5 baino gehiago ez zuten lortu. Are okerragoa izan zen Frantzia, Espainia, Irlandan eta Maltan jasotako emaitza, herrialde horietan merkataritzaren hazkundea hutsala izan zelako. Azpimarratu behar da Europako merkataritzaren okertzea bereziki EB barruko salerosketen beherakadaren ondorioa izan zela.

Nazioarteko testuinguru horretan, EAEko ekonomia sendo eta egonkor mantendu zen eta kanpo eskariak hazkundera puntu erdi bat bakarrik ken ziezaiola lortu zuen, esportazioen eta inportazioen hazkundeak parekoagoak izan zirelako. Zehazkiago adierazita, atzerrira esportatutakoa guztira %14,1 areagotu zen termino nominaletan eta 18.834,3 milioi eurora iritsi zen 2007. urtean. Inportazioak, berriz, ez ziren heldu aurreko urteko gehikuntza tasa nabarmenera, baina %9,4 hazi ziren eta 18.762,1 milioi eurotan kokatu ziren. Aldakuntza tasa horien ondorioz, eta merkataritza balantzan bi urtez jarraian defizita jaso eta gero,

2007ko urteko txostena

atzerriarekiko saldo nominalak, ondasunen atalean 72 milioi eurotik gorako superabita lortu zuen.

ONDASUNEN MERKATARITZA ATZERRIAREKIN

19. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak eta milioi euro

	2002	2003	2004	2005	2006	2007(*)	Milioi € 2007 (*)
Esportazioak							
Guztira	0,3	1,3	14,6	5,8	16,4	14,1	18.834,3
Ez-energetikoak	2,0	0,1	13,5	5,4	14,1	14,8	17.362,3
Energetikoak	-28,9	31,3	35,5	12,2	51,4	6,4	1.472,0
Inportazioak							
Guztira	1,5	3,2	19,8	15,6	20,2	9,4	18.762,1
Ez-energetikoak	1,2	2,6	15,6	4,4	14,6	17,1	13.104,2
Energetikoak	3,0	5,3	35,8	52,1	32,9	-5,2	5.657,9
Saldoa							
Guztira (milioi €)	1.466,4	1.292,1	935,6	-240,0	-830,7	72,1	72,1
Ez-energetikoak (milioi €)	3.093,0	2.890,0	3.106,6	3.375,9	3.810,3	4.258,1	4.258,1
Energetikoak (milioi €)	-1.626,6	-1.597,9	-2.171,0	-3.615,9	-4.641,0	-4.185,9	-4.185,9

(*) Behin-behineko datuak.


Iturria: Eustat.

Analisia energiaz bestelako merkataritzan bakarrik fokatzen bada, EAEko ekonomiak izan zuen emaitza are positiboagoa izan zen. Beraz, energiaren etengabeko garestitzeak esportazioetan izan zezakeen eragina kenduta, esportazioak %14,8 areagotu ziren. Energiakoak ez diren inportazioak, berriz, inportazioen guztizkoa baino gehiago hazi ziren, %17,1, aurreko urtean jasotako emaitza baino bi puntu eta erdi gehiago. Beraz, energiakoak ez diren esportazioek eta inportazioek 2000. urtetik aurrera inoiz lortu dituzten hazkunderik bizienak jaso zituzten 2007an. Bi bilakaera horien ondorioz, energiaz bestelako merkataritzak izan zuen superabita EAEko enpresek inoiz eskuratu duten handiena izan zen, 4.258 milioi eurotik gorako saldoa lortuta.


Ondasunen inportazioak
Urte arteko aldakuntza tasak

9. irudia


Alemania




Frantzia




Italia




Espania



Erresuma Batua



AEB



Iturria: Ekonomia eta Ogasun Ministerioa.

2007ko urteko txostena


Araba, Bizkai eta Gipuzkoako esportazioen ia %70 Europar Batasunera doaz, eta %56 baino zertxobait gehiago Eurogunera. Beraz, Europako ekonomiaren bilakaera oso garrantzitsua da EAEko kanpo arlorako. Bertoko produktuak erosten dituzten herrialde nagusi guztiek inportazioak gutxiago areagotzeko joera garbia hartu bazuten ere, oraindik hazkunde erritmo garrantzitsua izan zuten, ekonomia horietako barne eskariek sendo jarraitzen duten seinale. Horiek horrela izanda, EAEko esportazioek bere kuotari atxiki zioten Alemanian, Frantzian eta Erresuma Batuan. Hiru herrialde horietan, EAEko esportazioak bertako inportazioen guztizkoa baino gehiago hazi ziren. Txanponaren ifrentzuan, estatubatuar eta italiar merkatuek osatu zuten, beraietan EAEko ekoizkinek, merkatu kuota irabazi beharrean, zati bat galdu zuten.

Eskari zorroaren bilakaera


Enpresarien erantzunen saldo garbia (muturretako ehunekoen arteko aldea)

10. irudia

Industria giroaren indizea



Eskari zorroa guztira



Iturria: Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioa.

Industria giroaren indizeak sektore horretako enpresen kudeatzaileen iritziak biltzen dituen adierazle bat da. Inkesta horretan industriaren egoera ezagutzeko giltzarriak diren hainbat aldagairi buruz galdetzen zaie, hala nola, eskari zorroz, bukatutako produktuen izakinez, ekoizpenaz, salmentako prezioez eta enpleguaz. Adierazle honen bilakaerak eta eskari zorroaren nondik norakoaz enpresek eman dituzten iritziak baieztatzen dute EAEko kanpo arloak une gozoa bizi duela 2007. urtean. Bederatzi urtez jarraian salmentetarako aurreikuspenak, hala espainiar merkatuan nola atzerrian, ezkorrak izan ondoren, 2007an

azpimarragarria izan zen EAEko enpresarien baikortasuna. Espainia izan zen urte osoan zehar bezero nagusizat jotzen zena, eta 2008. urte hasierarako salmenta aurreikuspenek horrela zela baieztatu zuten.

ONDASUNEN ESPORTAZIOAK ATZERRIAN. ARANTZEL TALDEKA

20. TAULA

	Miloi €	Urte arteko aldakuntza tasak					
	2007(*)	2002	2003	2004	2005	2006	2007(*)
Guztira	18.834,3	0,3	1,3	14,6	5,8	16,4	14,1
Ez-energetikoak	17.362,3	2,0	0,1	13,5	5,4	14,1	14,8
Nekazaritzakoak	617,3	-0,7	4,5	0,7	-0,1	10,2	18,6
Energia ekoizkinak	1.472,0	-28,9	31,3	35,5	12,2	51,4	6,4
Kimikoak	394,5	9,9	-0,2	6,0	20,1	0,1	-6,2
Kautxua eta plastikoa	1.389,8	-2,9	0,2	3,8	21,9	40,5	6,4
Papera	498,8	1,8	-1,2	0,9	4,0	5,5	11,2
Metalak eta manufakturak	5.280,9	1,0	-0,7	18,7	13,1	17,4	23,3
Ekipamendu ondasunak	8.093,1	1,9	0,5	18,2	-0,3	10,3	12,4
- Makinak eta tresnak	3.858,1	1,0	3,6	0,8	5,7	10,6	13,1
- Garraio materiala	4.235,0	2,9	-2,7	37,6	-5,2	10,0	11,8
Bestelako manufakturak	929,5	8,5	-0,7	-6,4	-0,6	13,4	14,2
Sailkatu gabeak	158,4	10,6	-6,8	-15,7	31,4	14,5	12,9

(*) Behin-behineko datuak.
Iturria: Eustat.

Esportazioak arantzel sekzioka aztertzen badira, ez da aldaketa handirik aurkitzen ohiko joeren aldean. Hazkunde garrantzitsuenak pisu handiena duten atalek jaso zituzten, hots, metal arruntak eta beren manufakturek eta ekipamendurako ondasunek. Bi arantzel talde horiek esportazio guztien %70 baino gehiago berenganatzen dute. Azpimarratzekoa izan zen garraio materialaren bilakaera, bere pisua izugarri areagotu baita 1987. urtetik aurrera. Hain zuzen ere, urte hartan talde hori esportazioen %6 bakarrik bereganatzen zuen, baina 2007. urtean %22. Hala eta guztiz ere, hazkunde tasak ez dira horren positiboak izan. Azken bi urteetan hazkunde garrantzitsuak lortu dituen arren, azken zazpi urteetan gorabehera handiak ikusten dira bere bilakaeran.

2007ko urteko txostena

Plastikoa eta kautxua biltzen dituen taldea gutxiago hazi zen, baina hurbilago dago urteetan jaso dituen balioetatik. Aitzitik, papergintzak esportazioak areagotu zituen eta laugarren urtez jarraian hazkunde tasa positiboak jaso zituen, 2003. urtean izan zuen beherakada garrantzitsuaren ondoren. Bilakaera txarren artean, ekoizkin kimikoak kokatu ziren, merkatuan tokiari atxikitzeko helburua ez zutelako bete eta behera egin zutelako.

ONDASUNEN INPORTAZIOAK ATZERRITIK. ARANTZEL TALDEKA

21. TAULA

	Milioi €	Urte arteko aldakuntza tasak					
		2007(*)	2002	2003	2004	2005	2006
Guztira	18.762,1	1,5	3,2	19,8	15,6	20,2	9,4
Ez-energetikoak	13.104,2	1,2	2,6	15,6	4,4	14,6	17,1
Nekazaritzakoak	844,5	25,6	0,7	-12,3	0,8	-0,1	5,0
Energia ekoizkinak	5.657,9	3,0	5,3	35,8	52,1	32,9	-5,2
Kimikoak	485,7	-1,8	9,6	9,1	1,3	20,2	-1,8
Kautxua eta plastikoa	876,1	6,8	6,1	9,7	6,5	23,2	17,6
Papera	401,8	15,4	-5,9	15,0	2,5	11,3	9,7
Metalak eta manufakturak	5.120,0	-3,0	9,9	32,6	6,2	27,1	21,6
Ekipamendu ondasunak	4.179,3	0,8	-3,8	18,2	3,4	6,1	18,4
- Makinak eta tresnak	2.605,3	-10,1	0,8	10,0	2,7	12,6	9,9
- Garraio materiala	1.573,9	31,7	-12,6	36,4	4,6	-5,4	35,8
Bestelako manufakturak	1.180,2	-10,9	5,1	-1,3	6,4	9,0	15,4
Sailkatu gabeak	16,7	-18,3	23,1	0,5	-9,1	-52,1	-9,8

(*) Behin-behineko datuak.
Iturria: Eustat.

Inportazioei dagokienez, metal arruntak eta beren manufakturak, eta ekipamendurako ondasunak dira pisu eta hazkunde tasa handienak jasotzen dituzten ataletako bi. Hala ere, energia mendekotasunaren ondorioz nabarmentasun berezia bereganatu dute ekoizkin minerelek eta energiakoek. Hain zuzen ere, ekoizkin mineralak dira, azken hiru urtean, pisu handiena duen atala, 2005. urtetik ordura arte metal arruntek betetzen zuten tokia bereganatuta. Dena dela, energiako ekoizkinek 2007. urtean lortu zuten hazkunde tasa negatiboa izan zen (%-5,2), aurreko hiru urteetako gorakada garrantzitsuen ondoren. Garraio materialak 2006an galdu zuenaren zati bat berreskuratu zuen eta %30etik gora hazi zen, nekazaritzako ekoizkinek bezala.

EAE-K ATZERRIAN SALDUTAKO ONDASUN EZ-ENERGETIKOEN HELBURUA

22. TAULA

	Milioi €	Urte arteko aldakuntza tasak					
	2007 (*)	2002	2003	2004	2005	2006	2007(*)
Guztira	17.362,3	2,0	0,1	13,5	5,4	14,1	14,8
ELGE	13.856,1	2,6	1,6	11,8	5,6	14,6	9,9
Eurogunea	9.838,2	2,3	2,6	10,0	5,2	16,4	10,4
Europako kide berriak	876,3	3,6	-0,1	11,2	18,3	26,5	42,3
Europar Batasuna	12.151,6	2,6	2,3	10,9	5,3	15,8	10,8
Frantzia	3.108,1	2,8	1,0	11,6	3,7	10,4	6,8
Alemania	2.832,3	2,7	2,2	17,6	-0,8	23,5	13,9
Erresuma Batua	1.235,5	9,9	-0,6	20,1	0,9	3,4	13,5
Italia	1.344,0	-0,4	3,8	0,0	23,5	24,8	-2,7
ELGEko besteak (1)	2.480,1	3,0	-2,4	16,4	10,0	11,8	9,8
AEB	588,7	-3,9	14,6	-17,6	3,4	16,3	-8,4
Japonia	52,2	-30,5	-30,8	137,8	-25,9	-28,3	-1,4
ELGETik kanpokoak	3.506,2	-1,2	-7,2	22,8	4,5	12,0	38,9
Errusia	135,0	-20,5	1,8	84,4	-0,3	54,9	41,3
Txina	283,7	-20,4	67,4	28,1	17,7	28,1	15,5
Brasil	290,5	-36,6	-30,2	0,5	15,3	-14,1	27,9
Munduko besteak	2.797,0	13,2	-6,8	24,1	2,1	12,1	42,9

(*) Behin-behineko datuak (1) ELGEkoak EB-15ak izan ezik.

Iturria: Eustat.

Energiakoak ez diren esportazioen helburuari dagokionez, ekonomia eremu guztietan jaso ziren hazkunde positiboak. Europar Batasuna izan zen berriro EAEko produktuen erosle nagusia, eremu horretara esportazio ez-energetiko guztien %70 bideratu baitzen, bereziki Frantziara eta Alemaniara (%34 baino gehiago hara zuzendu zen). Azken herrialde horretan saldutakoa nabarmen areagotu zen eta 2005. urtean izandako beherakadaren ondoren, EAEko ekoizkinen salmenta handitu da.

ELGEko gainontzeko herrialdeetan, joera ez zen horren positiboa izan. AEBetara zuzendutako esportazio ez-energetikoen hazkunde tasak nabarmen jaitsi ziren eta ez ziren gai izan aurreko bi urteetan lortutako gorakadari atxikitzeko. Japonian saldutakoa, berriz, gutxiago izan zen seigarren urtez jarraian, salbuespen bakarra 2004ko emaitza izan zelarik.

2007ko urteko txostena

Aurrekoagatik, ez da harrigarria bi herrialde horietara bideratutako esportazioen ehunekoa energiaz bestelako esportazio guztien aldean txikiagoa izatea. Are gehiago, 1991. urtetik merkatu horiek guztizkoaren ia %6 izatetik 2007an %4 izatera igaro dira. Hala eta guztiz ere, esportazioak ez dira ELGE osatzen duten herrialdeetatik kanpora desbideratu eta AEBek eta Japoniak galdu duten pisua Europar Batasunean sartu diren herrialde kide berriek (EBKB) bereganatu dute. Merkatu horiek gero eta interesgarriagoak dira EAEko enpresentzat eta 2007. urtean herrialde horietara bideratutako salmentak energiakoak ez diren esportazio guztien %5 ziren dagoeneko.

ELGETik kanpo, herrialde guztietan lortu ziren hazkunde garrantzitsuak, Brasilen barne, 2006ko beherakadaren ondoren gehikuntza tasa sendoa berreskuratu baitzuen. Hala ere, Errusian, Txinan eta Brasilen gero eta gehiago saltzen den arren, ez da hautematen EAEko ekoizkinak merkatu horietan tokia hartzen ari direnik, zeren eta hazkunde tasen gorabeherak urtetik urtera berritzen baitira. Gertatu izan da %80tik gorako hazkunde tasa bat lortu ondoren, hurrengo urtean Errusiak jaitsiera jasotzea.

Azkenik, energiaz bestelako inportazioek bizitasun handia erakutsi zuten ekonomia eremu guztietan. Eremu bakoitzak inportazio ez-energetikoetan duen pisua esportazioetarako zehaztu denaren antzekoa da. Hain zuzen ere, Europar Batasunak erosketen %69 lortzen ditu, baina salmentetan urteetako joera egonkorra zen bitartean, inportazioen atalean garbi dago kontinente zaharra pisua galtzen ari dela. Zehazkiago adierazita, Euskadin egindako salmentak 1991an inportazio guztietatik %79,1 izan ziren bitartean, 2007. urtean %66,8ra jaitsiak ziren. Kasu horretan garbi ikusten da erosketak neurri batean garapen bidean dauden herrialdeetara desbideratu direla, bereziki Txinara, herrialde honek aipatutako epealdian zortzi puntu irabazi dituelako.

Dena dela, Europar Batasunetik iritsitako inportazioak %14,9 hazi ziren, 2000. urtetik inoizko gehikuntzarik handiena baita, Alemanian, Italian eta Frantzian egindako erosketei esker. ELGEko gainontzeko herrialdeetan ere gehikuntza tasa garrantzitsuak jaso ziren. AEBetan eginiko erosketek azken hamabi urteko gorakadarik handiena izan zuten, dolarrak euroaren aldean izan zuen kotizazioaren ondorioz. Japoniatik iritsitako inportazioak ere areagotu ziren eta atzean utzi zuten 2006an izandako beherakada handia.

ELGETik kanpo, azpimarratzekoa izan zen Errusiak eta Txinak lortu zituzten bi zenbakiko gorakadak. Azken honek gero eta tasa handiagoak lortu ditu 2001eko beherakadaren ondoren.

2007ko urteko txostena

Brasil, berriz, eremu horretako herrialderik ahulena izan zen, Euskadin eginiko salmentak %14,5 gutxitu baitziren. Beherakada hori 2004. urtean hasi zen moteltzeko joera iraunkorraren azken emaitza da. Norabide horren atzean, bereziki burdina eta altzairuaren galdaketaren erosketa jaitsi izana dago, Brasiletik etortzen diren energiaren bestelako inportazioen %70 baino gehiago produktu horietakoak baitira.

EAE-K ATZERRIAN EROSITAKO ONDASUN EZ-ENERGETIKOEN JATORRIA

23.TAULA

	Miloi €	Urte arteko aldakuntza tasak					
	2008 (*)	2002	2003	2004	2005	2006	2007(*)
Guztira	13.104,2	1,2	2,6	15,6	4,4	14,6	17,1
ELGE	9.818,5	1,0	0,7	10,5	2,2	11,4	16,8
Eurogunea	7.371,5	4,0	-0,7	14,5	2,5	12,3	19,0
Europako kide berriak	384,3	-22,6	16,9	13,2	21,0	27,3	44,9
Europar Batasuna	8.752,1	4,3	0,6	11,7	2,5	11,1	14,9
Frantzia	1.870,2	3,3	-2,7	12,7	-4,4	14,9	11,2
Alemania	2.440,0	13,5	-3,9	18,6	2,2	3,3	38,4
Erresuma Batua	811,6	14,0	4,1	-0,6	-1,8	2,6	-13,3
Italia	1.285,6	-4,8	-0,7	13,8	6,0	9,6	18,2
ELGEko besteak (1)	1.393,6	-21,2	4,3	2,8	4,2	17,5	32,6
AEB	378,6	-21,5	1,4	-7,4	-15,7	30,6	49,4
Japonia	168,4	-2,3	-14,1	-3,3	17,3	-1,3	7,5
ELGETik kanpokoak	3.285,8	2,1	13,1	40,0	12,6	25,6	18,0
Errusia	463,7	5,6	20,6	103,1	-3,4	17,5	10,4
Txina	1.139,1	7,3	17,1	24,6	33,9	38,1	45,9
Brasil	158,1	15,1	22,1	37,0	13,4	12,4	-14,5
Munduko besteak	1.524,9	-1,7	8,9	32,3	9,7	24,0	8,9

(*) Behin-behineko datuak (1ELGekoak EB-15ak izan ezik.
Iturria: Eustat.

2.3 Lan merkatua


Lan merkatuaren ikuspegitik, 2007. urtea ona izan zen Euskadirentzat, enpleguaren hazkundera oso nabarmena izan zelako eta langabeziaren adierazleak bere historiako daturik txikiena jaso zuelako, langabezia teknikoa deitzen den muga horretan ondo finkatuta zegoelarik. Handik

2007ko urteko txostena

beherago joatea ondorengo urteetan oso zaila izango da. Beraz, dagoeneko aurreko urteetan erakutsi zuen joerari atxiki dio eta landunen kopurua parte hartzaileen kopurua baino gehiago hazi da berriro eta langabezia tasa jaitsi. 2008. urterako dagoeneko argitaratu den informazioak joera berari atxiki diola adierazten du, hots, enplegua areagotu dela eta langabezia tasa ez dela igo (11. irudia). Hala eta guztiz ere, urtearen azken hilabeteetan oso nabariak dira ekonomiaren moteltzearen ondorioak.

Langabezia tasaren bilakaera EAEn

11. irudia



(*) 2008. urteko datuak lehen bederatzik hilabetei dagozkie.


Oharra: Serie hauek ez dira guztiz homogeneoak hainbat urteetan metodologia aldaketak egin zirelako.

Iturria: Eustat eta INE.

Enpleguari dagokionez, aurreko urteetan bezala, eremu hori aztertzen duten estatistikek oso bestelako emaitzak argitaratu dituzte. Hala ere, horietan guztietan garbi geratu da 2007. urtean lanpostu asko sortu zirela. Hain zuzen ere, alde batetik, BJA eta BAI inkestak nabarmendu behar dira, biek hazkunde tasa txikiagoak estimatu zituztelako (%1,1 eta %0,6, hurrenez hurren) eta gorabehera handiagoak urtea aurrera joaten zen ahala, gainontzeko estatistiken emaitzekin bat egiteko inolako joerarik erakusten ez zutenak. Beste aldetik, bai Eustaten kontu ekonomikoek bai Gizarte Segurantzako afiliazioak gehikuntza tasa garrantzitsuagoak erakutsi zituzten (%2,8 lehenengoen eta %2,6 bigarrenen) eta bien arteko antzekotasuna mantendu zen hiruhilekoz hiruhileko.

Enpleguen bilakaera EAEn
Urte arteko aldakuntza tasak

12.irudia



Iturria: Eustat, Gizarte Segurantza eta INE.

Afiliazioak erakutsi zuen bilakaera ona, neurri handi batean, atzerritar afiliatuen gorakadaren ondorioa izan zen, 2006an bere hazkundera gutxitu ondoren –aurreko urtean kolektibo horretako lan baldintzak arautzeko zabaldu zen epea amaituta- 2007an suspertu egin zen. Zehazkiago adierazita, afiliatu berri guztietatik ia heren bat atzerritarrak ziren. Are gehiago, Euskadin talde horrek lortu zuen gorakada (%19,4) Estatuan izan zutena (%8,6) baino askoz


2007ko urteko txostena

ere garrantzitsuagoa izan zen, hango tasa bikoiztu baitzuen. Dena dela, atzerritarren kopurua afiliazioaren guztizkoa oraindik oso txikia da (%4,9).


Atzerritar afiliatuen bilakaera EAEn

13. irudia

Urte arteko aldakuntza tasak



Afiliatu guztiekiko pisua ehunekotan



Iturria: Gizarte Segurantza.

Enpleguaren bilakaera kontu ekonomikoek sektore bakoitzari buruz ematen duten informazioari segika aztertzen bada, azpimarratu behar da higiezinaren zikloaren amaierak lanpostuak sortzeko ardura zerbitzuetara igaroarazi duela, ia 20.000 lagunetan areagotu baitzuen bere langile kopurua. Beraz, 2007. urtean sortutako lanpostu guztietatik %70 zerbitzuek sortu zituzten. Aurreratua izan zen bezala, eraikuntzaren enplegua %1,1 bakarrik igo zen, hainbat urtez gorakada handiak eta ekonomiaren batez bestetik gorakoak jaso eta gero. Etxegintzaren arazoek eragin zuten BPGren gehikuntzaren (%4,1) azpitik haztea. Azkenik, industrian sortutako lanpostuen hazkunde erritmoa (%3,3) positiboa izan zen, aurreko urteetan jasotako emaitza apalak atzean utzita.

Enplegua, oro har, %2,8 hazi zen 2007. urtean, aurreko urtean baino sei hamarren gehiago delarik. Horren ondorioz, ekoizkortasun irabaziak nabarmen moteldu ziren, aurreko urteko %2,1etik 2007ko %1,3ra. Jaitsiera horren eragilea industria izan zen, beraren ekoizkortasuna hiru puntuz murriztu baitzen (%3,7tik %0,7ra). Aitzitik, eraikuntzak emaitza hobea eskaini

zuen ekoizkortasun irabazietan, lortutako emaitza (%3,5) aurreko urteetako baino askoz ere handiagoa izan zelako. Neurri batean, sektorearen barnean gauzatu den berrantolaketaren ondorioa, obra publikoak pisu gehiago hartu baitu etxegintzaren kalte, eta azken honek erabiltzen du esku lan gehiago.

ENPLEGUA ETA EKOIZKORTASUN IRABAZIAK EKONOMIAREN ARLOETAN

24. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2002	2003	2004	2005	2006	2007
Enplegua guztira:	2,2	2,5	2,8	2,2	2,2	2,8
Ekoizkortasuna guztira:	0,2	0,6	0,9	1,8	2,1	1,3
-Enplegua lehen arloan	-0,3	-2,9	1,5	-5,1	-3,5	-4,0
-Ekoizkortasuna lehen arloan	-0,4	-3,3	29,4	-9,2	-0,9	14,4
- Enplegua industrian	1,2	1,2	0,9	-0,6	0,5	3,3
- Ekoizkortasuna industrian	-0,1	0,0	2,0	5,5	3,7	0,7
- Enplegua eraikuntzan	6,8	6,2	4,9	3,7	3,4	1,1
- Ekoizkortasuna eraikuntzan	-1,5	-1,2	-0,5	1,0	0,8	3,5
- Enplegua zerbitzuetan	2,1	2,8	3,4	3,5	3,1	3,2
- Ekoizkortasuna zerbitzuetan	0,6	0,5	-0,1	0,0	1,4	1,0

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustaten datuetan oinarrituta.

Enpleguaren analisia BJA inkestaren datuetan oinarritzen bada, azpimarratu behar da EAEn 2007. urtean lanean ari ziren lagunen kopurua inoizko handiena izan zela, guztira 964.000 landun estimatu zirelako. Hala ere, urte horretako hazkunde tasa 1994. urtetik jasotako txikiena izan zen, inkesta horren arabera. Dena dela, bilakaera horri esker 16 eta 64 urte bitarteko biztanleriaren enplegu tasa %67,2ra igo zen, 2010 urterako Europan ezarri zen %70era iristeko helburutik oso hurbil dagoelarik. Emakumeen enplegu tasak ere hobera egin zuen, %57,3an kokatuta eta Lisboako helburura iristeko hiru puntu baino gutxiago falta zaiola, europar batez bestera hurbiltzen ari den bitartean.

Soldatapeko langileen bilakaeraz, BJA inkestaren datuen arabera, adierazi behar da kontratu mugagabea duten lagunen kopurua nabarmen igo zela (%8,0), aldi baterako kontratua zutenena %-15,9 gutxitu zen bitartean. Horiek horrela izanda, aldibaterakotasun tasa lau puntu baino gehiago jaitsi zen aurreko urteko emaitzaren aldean (%25,3 2006an eta %21,0 2007an). Bilakaera bereziki ona izan zen urteko azken hilabeteetan, eraikuntzaren motelaldiaren


2007ko urteko txostena

ondorioz. Kontuan hartu behar da arlo horretan aldi baterako enplegua oso erabilia dela. Hala eta guztiz ere, nolabaiteko hobekuntza lortu bada ere, Euskadiko aldibaterakotasun tasa europar batez besteren oso gaintetik dago oraindik. Badirudi, arlo publikoa oztopoa izan dela tasa hori are gehiago jaisteko. Izan ere, INEren datuen arabera, arlo pribatuan %28,5etik %27,2ra jaitsi zen aldi baterako kontratua zuten langileen ehunekoa, baina arlo publikoan aldagai hori ia sei puntu gorago kokatu zen azken hiru urteetan, %26,6tik %32,4ra igo baita denbora horretan.


Aldibaterakotasun tasa soldatapekoen artean Ehunekoak

14. Irudia

EAE



Europar Batasuna




Iturria: Eustat eta Eurostat.

Nahiz eta urteetako joera nagusia lan jardunaldia murriztea izan den, 2007an atzerapauso bat eman zen joera horretan eta asteko batez besteko lanaldia 36 ordu eta 44 minutura igo zen, aurreko urtekoa baino bederatzita minutu handiagoa. Hazkunde hori zerbitzuetan gauzatu zen, gainontzeko arloetan batez besteko lanaldia aurreko urtekoa baino zertxobait laburragoa izan baitzen. Bereziki azpimarragarria izan zen eraikuntzaren kasua, bere jardueraren moteltzeak baldintzatuta aparteko ordu gutxiago erabili zirelako, batez besteko lanaldia nabarmen gutxituz. Sexuaren arabera, eta kontuan hartuta lanaldiaren igoera zerbitzuetan gauzatu zela, emakumeek areagotu zuten bereziki egindako lanaldia. Beste aldetik, lanaldi laburreko enplegu tasak emakumeen artean (%21,2) oraindik gizonen artean (%7,5) baino askoz ere altuagoa izaten jarraitzen du.


Lanaldiaren bilakaera
Astean lan egindako orduak

15. Irudia

Gizonak



Emakumeak



Iturria: Eustat.

Lan merkatuan parte hartzen dutenen kopuruari dagokionez, BJA inkestaren datuak aztertuta, aurreko urteetako beherakadaren ondoren, zertxobait hazi zen EAEn (%0,3). Igoera gizonen artean gauzatu zen, beren partaidetza tasa aurreko urteko %64,4tik 2007ko %65,0ra igo baitzuten. Aitzitik, emakumeen tasa hiru hamarren jaitsi zen (%44,9 2007an, aurreko urtean %45,2 izan zen bitartean). Adin taldeak aztertuta, gazteen artean jaitsierak aurrera jarraitu zuen, azken hamarkadetan jaiotze tasak izan duen beherakadak baldintzatuta. Jaiotzeen kopurua txikia izan denez, zailtasunak egongo dira sortuko diren lanpostuak betetzeko eta gaur eguneko erretiroak ordezkatzeko.

Lehenago ere adierazi denez, langabeziak oso bilakaera ona erakutsi zuen, oraindik langabezia teknikoaren mailan kokatuta baitago eta lanik gabe dauden pertsonen kopurua nabarmen jaitsi zelako. Jaitsiera horretako protagonistak gizonak (3.800) eta emakumeak (4.200) izan ziren ia kopuru berdintsuetan. Hurrenez hurren, beraien langabezia tasak %3,0 eta %3,6 izan ziren, hots, serie historikoaren emaitza onenak baitira. Beste urte batez, bi sexuen arteko aldea murriztu zen. Adin taldeen artean ere langabezia tasak bateratzeko joera hartu zuen. Hain zuzen ere, gazteen langabezia tasa %7,6ra jaitsi zen, 25 eta 44 urte bitarteko taldearena %3,7ra eta adin handienekoena %1,8ra.

2007ko urteko txostena

LAN MERKATUAREN ALDAGAI NAGUSIAK

25. TAULA

	Lagunak		Urte arteko aldakuntza tasak				
	2007	2002	2003	2004	2005	2006	2007
Parte hartzaileak	997.350	1,7	1,8	0,7	-0,9	-0,4	0,3
-Gizonak	575.830	1,2	0,3	-0,5	-0,7	-1,1	0,8
-Emakumeak	421.500	2,5	3,8	2,5	-1,3	0,7	-0,5
Landunak	964.780	5,0	1,4	1,6	1,3	1,4	1,1
-Gizonak	558.350	3,2	-0,6	-0,5	1,2	-0,1	1,5
-Emakumeak	406.480	7,8	4,6	4,7	1,5	3,4	0,6
Langabeak	32.550	-24,3	5,5	-8,7	-27,5	-28,9	-19,7
-Gizonak	17.475	-23,6	15,3	-0,5	-27,6	-22,5	-17,9
-Emakumeak	15.075	-24,7	-1,2	-15,1	-27,4	-34,9	-21,6

Iturria: Eustat.

LANGABEZIA TASAREN BILAKAERA EAE-N ETA EUROPAN

26. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasa	2002	2003	2004	2005	2006	2007
Alemania	8,5	9,8	10,7	11,1	10,2	8,6
EAE	8,3	8,6	7,8	5,7	4,1	3,3
Espainia	11,5	11,5	11,0	9,2	8,5	8,3
Frantzia	8,7	8,5	9,2	8,8	8,8	7,9
Italia	9,2	8,9	7,9	7,7	6,8	6,1
Erresuma Batua	5,0	4,8	4,6	4,7	5,3	5,2
Europar Batasuna	8,9	9,0	9,2	8,9	8,2	7,1

Iturria: Eustat, Eurostat eta INE.

Beste aldetik, sinatutako kontratuen bilakaerak, INEMen estatistikaren arabera, lan merkatuaren inkestek aldibaterakotasunari ematen dioten jaitziera baieztatu zuen. Zehazkiago adierazita, kontratu mugagabeen pisua kontratu guztien multzoan puntu bat eta hamarren bat igo zen, %4,2tik %5,3ra igota. Irabazitako tarte horren zati handi bat lanaldi osoko kontratu

mugagabeek izan zuten bultzadaren ondorio zuzena da, baina lanaldi laburreko kontratu mugagabeek ere pisua irabazi zuten.

KONTRATU MUGAGABEEN BILAKAERA

27. TAULA

	Kontratuak		(kontratuen guztizkoan duten pisua)				
	2007	2002	2003	2004	2005	2006	2007
Ohiko mugagabeak	21.177	1,7	1,5	1,4	1,5	1,6	2,5
Mugagabe berriak	8.301	1,4	1,3	1,2	1,2	1,2	1,0
Lanaldi osoko beste mugagabeak	287	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Lanaldi osoko mugagabe guztiak	29.765	3,1	2,8	2,6	2,7	2,8	3,6
Lanaldi laburreko mugagabeak	14.373	1,5	1,4	1,3	1,2	1,4	1,7
Mugagabeak guztira	44.138	4,6	4,2	3,9	3,8	4,2	5,3
Kontratu berriak guztira	836.459	---	---	---	---	---	---

Iturria: INEM.

ERREGISTRATUTAKO LAN KONTRATUEN BILAKAERA

28. TAULA

	Kontratuak		Urte arteko aldakuntza (%)				
	2007	2002	2003	2004	2005	2006	2007
Guztira	836.459	-0,2	5,2	6,4	1,9	3,1	4,1
Lanaldi osoko mugagabeak	29.765	-17,6	-5,4	-1,0	3,6	9,4	31,3
Obra edo zerbitzukoak	194.144	-3,3	1,6	4,2	-3,6	-0,1	0,7
Abagunekoak	241.969	-3,8	5,3	5,9	0,6	3,2	5,1
Abagunekoak	251.071	10,6	6,9	9,5	8,4	2,9	3,3
Prestakuntzakoak (*)	8.916	-7,6	-13,2	6,4	-3,9	0,7	-4,2
Gainontzekoak	110.594	1,0	14,8	7,1	2,2	8,8	4,8

(*)Prestakuntzako kontratuetan, lanaldi laburreko praktika kontratuak sartzen dira.

Iturria: INEM.

2007ko urteko txostena

Azkenik, azpimarratzekoa da mugagabe bihurtutako kontratuek jaso zuten beherakada garrantzitsua, %-29,2 gutxiago izan zirelako. Gogoratu behar da aldi baterako kontratuak mugagabe bihurtzeko ematen ziren hobariak lortzeko epea 2006. urte amaieran iraungi zela. Hala eta guztiz ere, 2007. urtean enpleguaren egonkortasuna areagotu zen, zeren eta kontratu mugagabeen kopurua aldi baterako kontratuena baino askoz ere gehiago hazi baitzen (%31,4 eta %2,9, hurrenez hurren).

2.4 Prezioak, kostuak eta soldatak

2007. urtean zehar, prezioen bilakaera neurtzen duten adierazle guztiek aurreko urtekoa baino hazkunde tasa txikiagoa jaso zuten, azken hilabeteetan inflazioaren nondik norakoan eragin negatiboena izan zuen faktoreak, hots, petrolioak, portaera hobea izan zuelako 2007ko lehen hilabeteetan 2006ko epe berean baino. Hori horrela izanda, kontsumoko prezioen indizearen urte arteko aldakuntza tasa sei hamarren jaitsi zen, IPRIrena puntu oso bat eta BPGren deflatorea zortzi hamarren.

Azken adierazle horri dagokionez, adierazi behar da arlo guztiek erakutsi zutela deflatore osoaren joera bera. Salbuespen bakarra industriarena izan zen, 2007. urtean industria lehengaiak izan zuten garestitze nabarmena islatu baitzuen. Aitzitik, eraikuntzaren deflatorea bi hamarren gutxitu zen. Are garrantzitsuagoa izan zen zerbitzuetako deflatoreak izan zuen beherakada eta, eraikuntzaren kasuan bezala, azken urteetako gehikuntza tasa txikiena jaso zuelako.

DEFLATOREEN BILAKAERA

29. TAULA

	2002	2003	2004	2005	2006	2007
BPGren deflatorea	2,8	3,3	4,4	3,4	3,3	2,5
Lehen arloko deflatorea	4,4	3,6	-21,1	10,0	2,7	-16,2
Industriaren deflatorea	1,2	1,8	6,1	2,6	1,5	3,1
Eraikuntzaren deflatorea	5,5	11,4	5,3	4,5	4,1	3,9
Zerbitzuen deflatorea	3,3	3,0	3,4	3,0	3,6	2,8

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuetan oinarrituta

Prezioak

Urteko batez bestean 2007ko datua $-2,8\%$ ko gehikuntza tasa- azken urteetako apalenetarikoa izan zen arren, kontsumoko prezioek $4,2\%$ ko igoera izan zuten 2007ko abenduan, 1995eko hilabete beretik inoizko gorena delarik. Urteko azken hilabeteetan prezioak azkar igo baziren ere, urtearen zati nagusian inflazioa kontrolpean egon zen. Esate baterako, abuztuko urte arteko tasa $2,3\%$ an kokatu zen. Izan ere, epealdi horretan petrolioaren salneurria 2006koa baino apalagoa zen. Hilabete horretatik aurrera, ordea, salneurriak oso bizkor hazi ziren. Petrolio gordinaren prezioa 100 dolarreko mugara hurbildu zen urteko azken hiruhilekoan eta horrek eragin nabarmena utzi zuen energiaren fakturan. Beste aldetik, gorakadak gertatu ziren elikagaien industrian, bereziki zerealaren eta esnearen prezioetan.

Zehazkiago adierazita, elikagaien nabaritu zuten lehengaien garestitze garrantzitsua nazioarteko merkatuetan, urte amaieran 25% aren inguru garestiago saltzen baitziren. Energiako merkatuetan egin diren berrikuntzen ondorioz erregaien aukerak zabaldu direnez eta hainbat janari lehengai ohiko erregaien ordezkioak izan daitezkeenez, beraien salneurria nabarmen igo ziren. Halaber, beste alderdi batzuk ere kontuan hartu behar dira inflazioaren gorakada hori azaltzeko, hala nola lehorteen ondorioz eskaintza murriztagoa izatea eta garapen bidean dauden herrialdeen eskaria gero eta handiagoa izatea.

KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

30. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2003	2004	2005	2006	2007	Ekarpena
Inflazioa guztira (%100)	2,8	3,0	3,3	3,4	2,8	2,8
Azpiko inflazioa (%82,7)	2,7	2,7	2,7	2,9	2,8	2,3
KPI Landutako elikagaiak (%15,4)	3,0	3,7	3,5	3,6	4,0	0,6
KPI Industriako ondasunak (%28,8)	1,6	0,5	0,7	1,4	0,7	0,2
KPI Zerbitzuak (%38,5)	3,4	4,0	3,9	3,7	3,9	1,5
Hondarreko inflazioa (%17,3)	3,7	4,6	6,3	6,1	3,0	0,5
KPI Landugabeko elikagaiak (%8,6)	5,9	5,1	4,3	4,3	4,2	0,3
KPI Energia (%8,7)	1,4	4,2	8,4	7,9	1,9	0,2

Iturria: INE.


2007ko urteko txostena

KPIren bilakaera


16. irudia

Urte arteko aldakuntza tasak

EAE



Europar Batasuna



Iturria: INE eta Eurostat.


Petrolioak izan da prezioen gehikuntzan eragin handiena izan duen osagaia, bere kotizazio gorabeheratsuaren ondorioz. Hain zuzen ere, urtarriletik abuztura doan tartean, petrolio gordinaren prezioak nolabaiteko egonkortasuna erakutsi zuen, urte arteko aldakuntza tasa beherantz bultzatuz. Baina egoera hori zeharo aldatu zen irailetik aurrera, une horretan petrolioak prezioa etengabe igozteari ekin ziolako. Izan ere, goranzko joera hori 2006ko epe berean gertatu zenarekin alderatu behar da eta epealdi horretan petrolioaren salneurria oso azkar merkatu zen.

Talde berezien analisiak agerian uzten du kontsumoko prezioek 2007. urtean izan zuten gorakadaren erantzule nagusia zerbitzuen bilakaera izan zela. Hain zuzen ere, zerbitzuen portaerak azaltzen du inflazio osoaren igoeratik puntu bat eta erdi. Horrek argi eta garbi adierazten du jardura zenbaitetan ez dagoela behar beste lehiarik. Zerbitzuez gain, prezioen tentsioak eragin zituen beste atal nagusia landutako elikagaiena izan zen. Talde hori nahiko egonkor mantendu zen aurreko urteetan eta baita 2007ko zati handi batean ere, baina abuztutik aurrera lehengaien garestitzearen ondorioz, gorakada nabarmenak jaso zituen. Bereziki deigarriak izan ziren ogiaren eta esnearen prezioek jaso zuten igoera. Azkenik, industriako ondasunen salneurriek nabarmen moteldu zuten beren hazkundera, bereziki, euroaren balio irabaziari esker.


KPIren talde berezien bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasak

17. irudia

Industria ondasunak



Zerbitzuak




Iturria: INE.


Azpiko inflazioaren bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasak

18. irudia

EAE



Europar Batasuna




Iturria: INE eta Eustat.

2007ko urteko txostena

Azpiko inflazioaren urteko batez besteak ere urte amaierako gorakada garrantzitsua ezkututzen du. Hain zuzen ere, hamarren bat gutxiago hazi bazen ere (%2,8, aurreko urteko %2,9aren aldean), azken hilabeteetan gehikuntza garrantzitsuak jaso zituen, landutako elikagaien garestitzearen ondorioz.

EA Eren eta Eurogunearen arteko inflazio tartea

19. irudia



Iturria: INE eta Eurostat.

Eurogunearikiko inflazio tartea bost hamarrenetan murriztu zen, aurreko urteko %1,2tik 2007ko %0,7ra igarota. Oraindik oso garrantzitsuak dira edari alkoholdunetan eta tabakoan dauden aldeak, herrialde bakoitzean erabakitzen diren zergen igoerek baldintzatuta. Halaber, lehia handiko talde batzuetan ere ikusten dira portaera okerragoak, hala nola komunikazioetan. Azken talde honek metatu zuen urte arteko aldakuntza tasa (%0,2) hutsala izan zen arren, Euroguneko emaitza askoz ere txikiagoa izan zen, prezioak nabarmen jaitsi zirelako. Beste

muturrean, prezioen igoerak handiagoak izan ziren Eurogunean irakaskuntzan, Alemaniako unibertsitateetako tasen igoeragatik, medikuntzan, eta aisia eta kulturaren.

Oro har, prezioen igoerak moteltzeari oztopo handienak edari alkoholodunek eta tabakoak, etxeko tresneriak, hotelak, kafetegiak eta jatetxeek, eta irakaskuntzak jartzen dituzte, horietan guztietan urte osoko batez besteko igoerak Europako Banku Zentralak ezarri zuen %2tik gora ez igotzeko helburua gutxienez bikoizten duelako.

EAE-KO KONTSUMO PREZIOEN INDIZEA

31. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2002	2003	2004	2005	2006	2007
Indize orokorra	3,7	2,8	3,0	3,3	3,4	2,8
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	4,2	4,1	4,3	3,6	4,1	3,8
Edari alkoholodunak eta tabakoa	5,2	3,0	3,7	4,8	2,0	6,6
Jantziak eta oinetakoak	5,1	3,0	0,7	0,7	1,1	1,4
Etxebizitza	3,0	2,9	4,2	5,0	6,3	3,6
Etxeko hornidura	2,1	1,7	2,2	2,2	3,0	5,5
Medikuntza	3,4	1,8	0,7	1,0	1,9	-0,5
Garraioa	2,3	2,1	4,1	5,6	4,3	2,3
Komunikazioak	-2,9	-2,6	-1,1	-1,6	-1,3	0,2
Aisia eta kultura	2,6	0,0	-0,2	-0,3	0,4	-0,9
Irakaskuntza	3,9	4,7	4,4	4,2	4,5	4,5
Hotelak, kafeak eta jatetxeak	5,2	3,6	4,0	4,4	3,9	4,6
Besteak	5,1	3,1	2,6	3,1	3,0	3,2

Iturria: INE.

Industriako prezioei dagokienez, hasierako hilabeteetan igoerak oso handiak izan ziren arren, denbora aurrera zihoan ahala gero eta gutxiago hazi ziren, nahiz eta urte amaieran berriro igo ziren, energiaren garestitzeak kaltetuta. Hala eta guztiz ere, batez besteko hazkundea %4,0an kokatu zen, aurreko urteko emaitzaren puntu bat beherako zegoelarik. Hain zuzen ere, bitarteko ondasunek hazkunde tasa handiena jaso zuten, industriaren lehengai metalikoen garestitzearen ondorioz. Beste aldetik, bizkortzeko joera biziena ekipamendurako ondasunek erakutsi zuten, batez ere mota horretako ekoizkinen eskaera 2007. urtean oso bizkor hazi


2007ko urteko txostena

zelako. Energiaren beherakadak eragin zuen industriaren prezioek urtean zehar ezagutu zuten jaitsiera.


IPRIren bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasak

20. irudia

EAE



Europar Batasuna



Iturria: Eustat eta Eurostat.

EAE-KO INDUSTRIAKO PREZIOEN INDIZEA

32. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2002	2003	2004	2005	2006	2007
Indize orokorra	0,6	1,3	4,3	5,2	5,0	4,0
- Kontsumoko ondasunak	2,5	1,5	1,9	1,7	2,9	4,1
- Kontsumo iraunkorrak	1,1	0,0	0,9	2,2	0,6	1,4
- Kontsumo iragankorrak	3,3	2,4	2,4	1,5	3,8	5,3
- Ekipamendu ondasunak	1,6	1,8	1,0	1,8	0,9	3,9
- Bitarteko ondasunak	0,9	1,2	6,9	5,2	6,2	6,0
- Energia	-4,6	0,1	5,5	17,0	8,9	-1,4

Iturria: Eustat.

Kostuak eta soldatak

Banakako lan kostuen bilakaerari eginiko hurbilpen batean ondorioztatzen da 2007. urtean aldagai hori aurreko urtean baino gehiago hazi zela (%2,2 2006ko %1,7aren aldean). Kostuak gehiago igotzeko arrazoia lan faktorearen itxurazko ekoizkortasuna gutxiago hazi izana da, soldatapeko bakoitzeko ordainketa aurreko urtean baino zertxobait gutxiago hazi zela ematen duen arren.

BANAKAKO LAN KOSTUEN BILAKAERA

33. TAULA

	2002	2003	2004	2005	2006	2007
BPG erreala	2,4	3,1	3,7	4,0	4,4	4,1
Enplegua	2,2	2,5	2,8	2,2	2,2	2,8
Itxurazko ekoizkortasuna	0,2	0,6	0,9	1,7	2,1	1,3
Soldatapekoen ordainketa	6,1	6,2	7,9	7,1	6,7	6,8
Soldatapekoak (*)	2,4	2,4	3,7	2,9	2,7	3,3
Soldatapeko bakoitzeko ordainketa	3,7	3,7	4,0	4,1	3,8	3,5
Banakako lan kostua	3,5	3,0	3,1	2,3	1,7	2,2

(*) Kontu ekonomikoetako daturik ezean, 2006 eta 2007 urteetarako soldatapekoen hazkundera Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorreko afiliazioarena hartu da.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuen oinarrituta.

Zehazkiago, ekoizkortasuneko irabazien igoera 2006koa baino askoz ere txikiagoa izan zen, industriak eta zerbitzuek emaitza okerragoa jaso zutelako. Eraikuntzak neurri txiki batean bakarrik konpentsatu zuen beste arloetako hazkunde apalagoa. Beste aldetik, soldatapekoen ordainketa ia ez zen aldatu aurreko urteko gehikuntza tasaren aldean, baina pentsatzekoa da soldatapekoen kopurua enplegu osoarena baino zertxobait gehiago hazi zela, 2007. urtean sortutako lanpostu asko industriakoak zirelako, hots, autonomoen partaidetza txikia duen sektore batekoak. Aurrekoaren ondorioz, soldatapeko bakoitzeko ordainketa aurreko urtekoa baino zertxobait txikiagoa izan zitekeen.

Soldatapeko bakoitzeko ordainketa gutxiago hazi zelako ustea bat dator negoziazio kolektiboak izan zuen bilakaerarekin. Izan ere, 2007an adostutako soldata igoera %4,2an

2007ko urteko txostena

kokatu zen, 2006ko batez besteko gehikuntzatik zazpi hamarren beherago. Moteltzeko joera horren atzean inflazioak 2006ko abenduan izan zuen portaera ona dago, horixe baita 2007ko lan hitzarmenak adosteko unean gehien erabili zen erreferentzia. Sektore eta enpresa mailako hitzarmenen artean ez zen ezberdintasun handirik hauteman, ez eta urte askotarakoan eta urtean zehar adostutakoan artean ere.

HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

34. TAULA

	2002	2003	2004	2005	2006	2007
Indarrean dauden hitzarmenak	3,9	4,4	4,0	4,5	4,9	4,2
- Urtean zehar sinatutakoak	3,8	4,9	3,9	4,3	5,0	4,1
Negoiazio esparruaren arabera:						
- Sektoreko hitzarmenak	3,9	4,5	4,0	4,6	5,0	4,2
- Enpresako hitzarmenak	4,0	3,9	3,8	4,1	4,1	4,2

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

2.5 Arlo publikoa

Aurrekontuetako eragiketa arruntek aurreko urteetan baino hazkunde tasa altuxeagoak lortu zituzten 2007. urtean eta hala diru sarrerak nola gastuak barne produktu gordin nominalaren aldakuntza tasa baino gehiago hazi ziren. Zehazkiago adierazita, diru sarrera arruntak %11,5 areagotu ziren aurreko urteko emaitzaren aldean, BPG nominala %6,7 gehitu zen bitartean. Lehenago ere aipatua izan denez, EAeko ekonomia nozitzen ari den moteltzeko prozesuak nabarmen gutxituko du 2008ko eta 2009ko diru bilketa. Beraz, ez dira aurreikusten azken lau urteetan lortutakoak bezalako gehikuntza tasa garrantzitsuak diru bilketaren atalean.

Gastuari dagokionez, finantzaz bestelako gastuaren hazkunde tasa 2007. urtean %10,1 iritsi zen, hots, aurreko urteko emaitza baino puntu bat eta hiru hamarren gehiago. Gastu hori atalka nola banatzen den aztertzen denean, agerian gelditzen da gehikuntza gastu arruntetan zein kapitaleko gastuetan gertatu zela. Langileen gastuek eta funtzionamenduko gastuek gehikuntza tasa garrantzitsuak eta aurreko urteetakoak baino handiagoak jaso zituzten. Aitzitik, gastu finantzarioek behera egin zuten berriro, zor publikoaren epeak amortizatzen diren heinean eta jaulkipen berririk ezean.

Eragiketa horiek ondorioz, eragiketa arrunten saldoa %16,9 areagotu zen. Horri esker, finantzakoak ez diren eragiketen saldoa positiboa izan zen eta aurreko urtekoa baino %20,7 handiagoa.

EUSKO JAURLARITZAREN ETA FORU ALDUNDIEN GASTU BATERATUKO ERAGIKETAK **35. TAULA**

Mila euro

	2007	Urte arteko aldakuntza (%)					
		2002	2003	2004	2005	2006	2007
1. SARRERA ARRUNTAK	14.616.927	5,7	5,5	9,9	11,2	11,2	11,5
2. GASTU ARRUNTAK	11.507.589	5,2	9,3	7,5	7,3	8,8	10,1
Langileen gastuak	1.995.139	4,4	5,0	3,5	5,5	5,7	8,1
Funtzionamenduko gastuak	3.125.408	11,5	9,4	6,7	7,0	10,6	12,6
Finantza gastuak	74.786	-20,8	7,3	-1,2	-13,1	-13,5	-20,5
Transferentzia arruntak	6.312.256	3,6	10,9	9,6	8,6	9,4	10,1
3. ERAGIKETA ARRUNTEN SALDOA (1-2)	3.109.338	7,8	-13,3	25,3	32,5	21,9	16,9
4. KAPITALEKO SARRERAK	66.403	51,3	-22,5	-34,4	13,8	-22,4	-33,2
5. KAPITALEKO GASTUAK	1.780.134	14,9	-2,1	-2,7	2,2	11,1	11,1
Inbertsio errealak	897.602	26,4	-3,3	-2,2	4,3	7,0	10,4
Kapitaleko transferentziak	882.531	4,7	-0,8	-3,4	-0,1	15,7	11,8
6. KAPITALEKO ERAGIKETEN SALDOA (4-5)	-1.713.731	-10,3	-1,5	-1,5	-1,2	-14,3	-14,0
7. FINANTZAZ BESTELAKO SALDOA (3+6)	1.395.607	-2,8	-86,7	925,9	149,6	33,4	20,7

Iturria: Ogasun eta Herri Administrazio Saila.

Itunpeko zergen diru bilketak aurreko urteetako bilakaerari jarraipena eman zion, baina bi zenbakiko gehikuntza batera iritsi gabe. Hain zuzen ere, 2007ko ekitaldiaren amaieran, hiru foru aldundien diru bilketa bateratua %9,7 areagotu zen aurreko urtearen aldean. Bereziki garrantzitsua izan zen zuzeneko zergen diru bilketaren hazkundera, zeharkakoan moteltzearen eragina hautematen hasi zen bitartean.

Zerga zuzenen artean, pertsona fisikoen errenten gaineko zergarekin (PFEZ) hasita, 2007. urtean foru lurraldeetan zergaren erreforma sakon bat jarri zen martxan. Beste neurri batzuen artean, %18ko tipo bakarra onartu zen kapital higigarriarentzat, higiezinarentzat eta gainbalioentzat, kenketa berriak sartu ziren eta gehieneko tipoa %48tik %45 jaitsi zen. Neurri

2007ko urteko txostena

horien eragina diru bilketan kontrajarria izan zen. Alde batetik, higigarrien etekin eta kapital irabazi gehienen gaineko atxikipen tipoa goratu izanak diru sarrerak areagotu zituen, baina gainontzeko neurriek alderantziko efektua izan zuten, diru bilketa gutxituz. Hala ere, diru bilketaren gehikuntza bereziki lanaren gaineko atxikipenen igoeraren ondorioa izan zen, zergadunen kopurua handitu zelako eta soldatapekoen errentek hobekuntza nabarmena izan dutelako.

Halaber, sozietateen gaineko zergak ere oso aldaketa garrantzitsua izan zuen, zergaren tipoa %35etik %32,5era jaitsi zelako eta kenketak ere aldatu zirelako. Hala eta guztiz ere, zerga honen diru bilketak gehikuntza tasa handiena jaso zuen, %20,2ko igoera lortuta. Horrek esan nahi du ia hiru puntu gehiago hazi zela aurreko ekitaldian baino. Era berean, azken hamarkadan lortu duen hirugarren emaitzarik onena izan zen 2007koa. Bilakaera on horren atzean, enpresen mozkinen gorakada dago, zergaren diru bilketan oso eragin positiboa izan baitzuten.

Aitzitik, zeharkako diru bilketak moteltze garrantzitsua jaso zuen. Horren adierazgarri, balio erantsiaren gaineko zergaren (BEZ) diru bilketa dago, aurreko urteetakoa baino hazkunde tasa txikiagoa jaso zuelako. Hala ere, zerga hau da oraindik foru aldundiei diru gehien ematen diena. Ikuspegi ekonomiko batetik, azpimarratu behar diren arrazoiak agertzen hasia zen higiezinen arloko beherakadaren lehen zantzuak eta kontsumoaren apaltzea, bereziki urtearen bigarren erdian. Araudi aldaketan artean, hainbanaketa erregela ezartzeko metodoa aldatu izana aipatu behar da. Horrek itzuli beharreko diru kopurua asko igoarazi du. Beste aldetik, itzulketa berehala jasotzeko eskubidea jarduerak gehiagotara zabaldu da. Azkenik, itzulketak ere gero eta bizkorrago egiten dira.

Zerga bereziek, BEZ zergak ez bezala, goranzko joerari segida eman zioten, bereziki dirua biltzeko ahalmen handiena duen zerga bereziaren, hots, hidrokarburoen gaineko zergaren gaineko bilakaera onari esker. Horrek agerian uzten du erregaien prezioen bilakaerak eragin txikia duela zerga horren diru bilketan.

ZERGA ITUNDUEN BILAKAERA

36. TAULA

Mila euro

	Zergak		Urte arteko aldakuntza (%)				
	2007	2002	2003	2004	2005	2006	2007
PFEZ	4.266.304	4,7	5,1	1,1	11,5	10,3	13,6
- Lanaren eta lanbide jardueraren etekinen atxikipenak	4.040.736	7,0	6,2	4,0	8,2	8,7	7,6
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	237.211	4,3	-11,9	-4,8	17,3	13,7	56,2
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	41.587	6,2	5,8	8,4	5,5	8,3	27,1
- Ondare irabazien atxikipenak	40.254	-26,9	-27,7	-18,6	53,5	35,7	90,2
- Profesionalen eta enpresarien ordainketa zatikatuak	181.643	-0,6	1,2	1,6	2,5	5,9	4,0
- Kuota diferentzial garbia	-275.128	-20,3	-4,9	-23,0	12,9	3,7	27,8
Sozietateen gaineko zerga	2.034.171	7,5	0,1	9,7	26,4	17,5	20,2
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	237.211	4,3	-11,9	-4,8	17,3	13,7	56,2
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	41.587	6,2	5,8	8,4	5,5	8,3	27,1
- Ondare irabazien atxikipenak	40.254	-26,9	-27,7	-18,6	53,5	35,7	90,2
- Kuota diferentzial garbia	1.715.119	9,1	2,4	12,0	27,8	17,9	15,4
Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga	175.801	-36,2	-52,8	117,3	48,8	53,3	149,2
Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga	76.164	20,9	13,9	-8,5	70,3	-3,5	-0,2
Ondarearen gaineko zerga	154.297	-8,6	-11,8	-2,7	14,5	18,8	21,4
ZUZENEKO ZERGAK GUZTIRA	6.706.737	4,7	3,0	3,4	16,4	12,7	17,2
BEZaren bertoko kudeaketa	3.661.087	1,0	10,4	15,1	23,7	16,5	5,7
Ondare eskualdatzeen gaineko zerga	372.128	3,0	18,0	21,2	10,1	19,7	1,1
Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga	134.867	26,0	8,7	0,5	2,9	18,4	-1,3
Garraiobide jakin batzuen gaineko zerga bereziak	77.001	-7,0	3,4	7,8	5,1	8,4	9,5
Fabrikazioaren zerga berezia. Bertoko kudeaketa	1.501.086	7,6	3,8	7,0	3,5	5,3	6,4
Hidrokarburu jakin batzuen txikizkako salmentaren zerga	51.957	---	39,1	1,9	6,0	5,2	3,7
Aseguru sarien gaineko zerga	78.121	9,6	7,0	7,2	9,6	1,4	8,6
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA	5.877.521	4,8	8,7	12,1	15,5	13,2	5,4
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA	118.466	10,0	5,5	-4,5	1,7	-1,6	14,3
BERTON KUDEATUTAKO ZERGA ITUNDUAK	12.702.725	4,8	5,6	7,3	15,8	12,8	11,4
BEZaren doikuntza	1.176.342	6,3	10,0	6,7	-2,3	-0,3	-2,7
Zerga berezian doikuntza	-106.944	-2,0	-9,3	29,1	17,0	-7,1	-90,8
ITUNDUTAKO ZERGAK GUZTIRA	13.772.123	5,0	6,1	7,6	13,7	11,4	9,7

Iturria: Foru Aldundiak.

2.6 Finantza arloa

AEBetan, teknologiaren burbuilak 2001 eta 2002 urteen artean eztanda egin zuenetik, inbertitzeko kapitalek higiezin ondasunak erostera ihes egin zuten. Halaber, interes tasak era ezohiko batean jaitsi ziren, irailaren 11ko atentatuen ondoren sortutako mesfidantzari aurre egiteko eta kontsumoari eta, oro har, ekonomiari bultzada emateko. Aurreko guztiak higiezin merkatuan burbuila bat sortzea eta etxebizitzak espekulatzeko asmo hutsez erostea ahalbidetu zuen.

Testuinguru horretan, arrisku handiko hipotekak, subprime deitutakoak, agertu ziren. Hipoteka mota horiek kaudimen gutxiko eta, beraz, ez ordaintzeko arrisku handia duten bezeroentzat pentsatuta zeuden. Interes tasa, hainbat urte igaro ondoren, ohiko maileguena baino handiagoa zen, eta bankuaren komisioak ere altuagoak. Hipoteka horiek bonuak edo kredituen titulazioak erosteko erabili ziren. Horrela, mailegua ematen zuen entitatearen balantzearen finantza aktiboetatik kentzen ziren eta inbertsio funtsetara edo pentsio planetara eramaten.

Erreserba Federalak interes tasak igo zituenean, arazoak agertu ziren. 2004 eta 2006 urteen artean, interes tasa %1,0tik %5,25era igo zen. Etxebizitzan salneurriak nabarmen egin zuen behera eta ordaindu gabeko kuotak izugarri areagotu ziren. Horrek guztiak likidezia arazo larriak ekarri zituzkien banku entitate askori inbertsioegileei dirua itzultzeko orduan eta baita finantzazio gehiago lortzeko ere.

Ekonomia global batean, zeinean finantza kapitalak oso bizkor eta maiz eskuz aldatzen baitira, ez da harritzekoa inbertsioegileak onartu duen benetako arriskuaren berri ez izatea. Hori horrela izanda, jakin zenean banku garrantzitsu batzuek eta inbertsio funts handiek beren aktiboetako zati bat arrisku handiko hipoteketan zeukatela alarma guztiak piztu ziren. Mesfidantzak eta kapitala galtzeko beldurrak kredituaren murrizketa eragin zuten eta burtsa balioek gorabehera izugarriak bizi zituzten. Gorpil zoro batean sartuta, mesfidantza, beldurra eta inbertitzeko ukoa areagotu ziren, likidezia faltaren ondorioz.

2007ko otsailean, Wall Streetek subprime hipoteken arriskuez eta ordurako modu nabarmen batean areagotuak ziren hipoteken ordaintzen hutsez ohartarazi zuen. Ekainean ezagutu zen titulutan eskaintako zorretan inbertsioak egiten zituen enpresa garrantzitsu baten, Bearns

Stearnsen, zenbait funts malguk porrot egin zutela. Uztailean, Erreserba Federalak zarama hipoteken ondorioz galdutako dirutza 50.000 eta 100.000 milioi dolarretan kokatu zuen. Data horretatik aurrera egoerak okerrera egin du. Hipoteka mota horiek kaltetu zituen entitate batzuen izenak ezagutu ziren eta horri gehitu behar zitzaion gainontzeko entitateek erakutsi zuten gardentasun falta, mesfidantza areagotu zuena. Banku zentral nagusiek, ekintza koordinatu batean, likidezia gehiago sartzea erabaki zuten, arazo horri aurre egiteko eta burtsen gorabeherak egonkortzeko. Hala ere, finantza krisiaren ondorioak ekonomia errealerara igaro ziren.

Finantza zurrumbiloak ekonomian eta finantza merkatuan sortu zuen narriadurak eragina izan zuen herrialde guztietako moneta politiketan. Hori dela eta, interes tasetan mugimenduak erabaki zituzten.

Europar, ekonomiak 2007ko lehen seihilekoan erakutsi zuen sendotasunak eta prezioen etengabeko igoerak EBZ behartu zuen 2005eko abenduan hasi zuen moneta doikuntzari jarraipena emateko. Beraz, bitan igo zituen interes tasak, martxoan eta ekainean, esku hartzeko tipoa %4,0an kokatu arte. Ondorengo hilabeteetan, eta ziurgabetasuna areagotzen zen heinean, inflazioa igotzen zen bitartean eta ekonomia eremu horretako herrialde nagusietan hazkundera txikiagoa izango zelako ustea zabaltzen zen neurrian, EBZk diruaren prezioa bere horretan uztera behartuta ikusi zuen bere burua. Interes tasek %4,0an jarraitu zuten 2008ko uztaileko batzarra egin arte. Petrolioaren aurrekaririk gabeko garestitzeak eta prezioen gehikuntza soldatetara igaro zitekeelako beldurrak EBZ behartu zuten interes tasa 25 oinarri puntu gehiago igotzera, %4,25era.

Erreserba Federalak, berriz, diruaren prezioa %5,25ean egonkor utzi zuen 2007ko zatirik handienean, eta zarama hipoteketatik eratorritako zurrumbiloa hasi arte ez zuen erabaki interes tasak gutxitzeko joera hartzea. Hain zuzen ere, eta ekonomiaren hazkundera suspertzeko asmoarekin, 2007ko irailean 50 oinarriko puntuko lehen jaitsiera erabaki zuen. Horri beste lau beherakada jarraitu zitzaizkion, 2008ko apirilean esku hartzeko tasa %2,0an kokatu arte. Erabaki horien artean, azpimarratzekoa da 2008ko urtarrilekoa, modu ezohikoan hartu baitzuen eta 75 oinarri puntura iritsi baitzen. Egun hartako beherakada azken 23 urteko handiena izan zen.

Ingalaterrako Bankuak, subprime hipoteken krisitik libre eta inflazioaren presioak behartuta (bertako KPI indizeak %3,0 gairitu zuen zenbait hilabeteetan), 2006ko abuztuan hasi zuen


2007ko urteko txostena

politika murriztaileari jarraipena eman zion eta hiru aldiz igo zuen erreferentziako interes tasa, 2007ko abuztuan %5,75ean kokatu arte, hots, 2001eko apiriletik inoiz izan duen baliorik gorenean. Hala ere, zerbitzuetan eta kontsumitzailearen konfiantzan jaso zen moteltzeak Ingalaterrako Bankua behartu zuen abenduko bileran interes tasa %5,5era jaistera. Harez geroztik, eta finantza zurrunbiloaren eraginaren ondorioz, beste bi jaitsiera onartu ziren, biak 25 oinarri puntukoak, erreferentziako tipoa %5,0an kokatu zutenak. Beraz, 2006ko abenduan zegoen tasara itzuli zen, oraindik EBZk ezarritako %4,0tik oso gora.


Banku zentralerako erreferentzia tasak
Ehunekoak

21 irudia


AEB




Erresuma Batua



Eurogunea



Japonia



Iturria: Espainiako Bankua.

Japoniako Bankuak, berriz, ia ez zuen inolako aldaketarik egin bere moneta politikan 2007. urtean zehar. 2006ko uztailean diruaren prezioa %0,25 igo zuenetik, kontsumo pribatuaren geldotasunak eta inflazioaren maila apalak ez zuten aukerarik eman igoera gehiago onartzeko. Hala eta guztiz ere, 2006ko amaieran makroekonomiaren esparruan lortutako emaitza onek banku zentrala animatu zuten erreferentzia tasa beste 25 oinarri puntu igotzen, eta maila horretan utzi zuen 2007ko urte osoan, ekonomia jardueraren bilakaera zalantzatiak gehikuntza gehiagorako tarterik ez baitzuen ematen. Finantza arloko zurrunbiloek eragin txikia izan zuten Japoniako finantza sisteman eta, horren ondorioz, 2008ko lehen seihilekoan ez zen aldaketarik erabaki bankuaren bileretan.

Interes tasen mugimenduak ez dira izan banku zentral nagusiek krisiari aurre egiteko hartu dituzten erabaki bakarrak. 2007ko abuztuaren 10ean, Europako Banku Zentralak likideziaren lehenengo injekzioa egin zuen, 94.000 milioi eurotik gorakoa. Egun horretatik aurrera, banku zentral nagusiek hainbat aldiz egin dituzte aparteko ekintza koordinatuak, sistemari likidezia gehiago emateko, lasaitasuna zabaltzeko eta bankuen jarduera errazteko. Hala ere, ekintza horien artean azpimarratu behar dena 2008ko irailaren azken egunetan Erreserba Federalak, EBZk, Japoniako, Kanadako, Ingalaterrako, Danimarkako, Norvegiako, Australiako, Suediako eta Suitzako banku zentralak onartutako akordioa da. Hitzarmen horretan sistemari 620.000 milioi dolar injektatu zizkieten.

Hori ez zen izan banku zentralak egin zuten eragiketa koordinatu bakarra. 2008ko urriaren hasieran, ordura arte irailaren 11ko atentatuen ondoren bakarrik egin zen ekintza batean, Erreserba Federalak, EBZk eta Ingalaterrako, Kanadako, Suitzako eta Suediako banku zentralak puntu erdi bana jaitsi zituzten interes tasak. Japoniako bankuak neurri hori babestu zuen, baina bere interes tasak aldatu gabe. Jaitsiera horren bitartez, merkatuei sendotasunezko mezu bat helarazi nahi zien, familiei eta enpresei finantzazioa errazteko asmoz.

Dibisa merkatuetan, finantza arloko ziurgabetasunak, AEBetako moteltzeak eta interes tasen bilakaerak truke tasa ere baldintzatu zuten. Euroaren truke tasak 2005eko azken hiruhilekoan hasi zuen balioa irabazteko joerari jarraipena eman zion. 2007. urtean zehar, euroak dolarraren aldean irabazitako balioa areagotu zen, estatubatuar ekonomia moteltzeko joera hartzen ari zela egiaztatzen zen heinean eta interes tasei buruzko aurreikuspenak berrikusten ziren neurrian. Hain zuzen ere, euroa %12aren inguruan garestitu zen dolarraren aldean 2007an. Hala ere, gehikuntza hori europar diruak lortuko zuen balio irabaziaren hasiera baino ez zen izan. Erreserba Federalak esku hartzeko interes tasa jaisten zuen heinean, dolarretan izendatutako aktiboek interesa galtzen zuten eta eurotan izendatutakoek, ordea, irabazi.


2007ko urteko txostena

AEBetako banku zentralak beherantz egiten zuen mugimendu bakoitzak euroaren kotizazioa gorarazten zuen. Euroak inoizko baliorik gorena 2008ko apirilean lortu zuen, 1,60 dolarren truke ordaindu zenean, aurreikuspen guztiek Erreserba Federalak interes tasa berriro jaitsiko zuela iragartzen zutenean. Eta %2,0an kokatu zuen diruaren prezioa. 2008ko apiriletik uztailean bitartean, euroa 1,54-1,60 dolarren artean kokatu zen eta uztailean berriro eskuratu zuen baliorik gorena, euro baten truke 1,6038 dolar ordaindu zirenean.


EBZk euroarentzat ezarritako truke tasa ofizialak
Moneta unitateak euro bakoitzeko

22. irudia


Dolarra




Suitzako frankoa



Libera Esterlina



Yen



Iturria: Espainiako Bankua.

Abuztutik aurrera, Eurogunearen ekonomiak jaso zituen emaitza txarrek, eremu horretarako aurreikuspenetan beherantz egin ziren berrikuspenek eta estatubatuar ekonomiak espero zena baino emaitza hobea lortu izanak dolarraren alde jokatu zuten, euroaren aldean galdutako balioaren zati bat berreskuratzen hasi baitzen eta 1,3882 dolarretara iritsi zen irailaren erdialdean.

Euroak yenaren aldean izan zuen bilakaera oso antzekoa izan zen. Bi txanpon horien arteko balio txikiena 2000. urteko urrian gertatu zen, euro baten truke 88,94 yen ordaintzen ziren garaian. Harez geroztik, truke tasak goranzko joera hartu zuen eta gaur arte iraun du. Japoniako Bankuak ezarri zituen interes tasa txikiek inbertitzaile asko animatu zituen dirua yenetan hartzen gero mozkin handiagoak ematen zituzten herrialdeetan inbertitzeko, hots, interes tasa altuagoak zituzten ekonomietara eraman zuten. Estrategia horrek yena ahultzen du, zeren eta mailegatzen diren yen horiek inbertsioa egiten den herrialdearen txanponarekin trukutzen baita, yenaren balio galera etengabe areagotuz.

Hori horrela izanda, EBZk erabaki zuen interes tasen igoerak mota horretako eragiketak bultzatu zituen eta yenaren etengabeko balio galera eragin zuen. 2007. urtean zehar 155-165 yen ordaindu ziren euro baten truke. 2008ko uztailan eta Europan erreferentzia den interes tasaren igoerarekin batera, euroak azken 21 urteko mailarik gorenean kotizatu zuen, 168,45 yenetara iritsita. Geroztik, eta interes tasen mugimenduak eraginda, yenak balioa irabazi zuen eta bere kotizazioa zertxobait igo zen.

Euroak egonkortasun handia erakutsi zuen libera esterlinaren aldean. 2007. urte osoan zehar, truke tasa 0,66-0,68 liberen artean ibili zen, gutxi gorabehera aurreko urtean izan zuen kotizazio bera. Hala ere, 2008. urtean ibilbide horrek zenbait aldaketa izan ditu. Urtea hasi zenetik, liberak euroaren aldean balioa galtzeko joera hartu zuen. Euroak 1996ko azken hiruhilabetetik inoiz izan duen baliorik gorena lortu zuen epealdi horretan, truke tasa 0,795 liberetara iritsita. Azkenik, Suitzako frankoak balioa galtzeko joerari jarraipena eman zion 2007. urtean zehar eta euroarekiko truke tasa 1,6706 frankotan kokatu zen 2007ko urrian, 1997ko apiriletik inoiz izan zen gorena baita. Harez geroztik, dibisa horrek galdutako balioaren zati bat berreskuratu zuen eta 2008ko lehen hilabeteetan zertxobait indartu zen.

Makroekonomiaren datuek eta banku zentralekin hartutako erabakiek eragin zuzena izan zuten burtsen merkatuen bilakaeran. 2007ko otsailan eta abuztuan ezegonkortasuneko une batzuk gertatu ziren arren, munduko ekonomiaren bilakaera onak eta merkatuetan zegoen likidezia


2007ko urteko txostena

handiak goranzko bultzada eman zieten burtsa merkatuei. Subprime motako hipoteken arazoa dagoeneko hasita zegoen arren, AEBek ondo erantzun zioten krisiari eta Europa gero eta gehiago hazten ari zen, neurri batean Alemaniaren sendotasunari esker. Aurreko guztiaren ondorioz, garatutako herrialdeen burtsek irabazi orokorrak izan zituzten 2007. urtean, lortutako hazkundea %5aren eta %7aren artekoak izan zirelarik. Alemaniako burtsak emaitza aparta izan zuen, %20ko hazkundea, baina guztien artean nabarmendu behar dena Txinako burtsa da, munduko bigarren merkatu garrantzitsuena izatera iritsi baitzen, Japoniaren, Ingalaterraren, Frantziaren eta Alemaniaren aurretik. Bertako CSI 300 indizeak %160 baino gehiago irabazi zuen urtean zehar.

Hala ere, ekonomia errealdaren bilakaeraz piztu ziren ziurgabetasunak areagotu ziren heinean eta petrolioaren eta elikagaien salneurriak igo ziren neurrian, burtsek egonkortasuna galdu zuten. Hain zuzen ere, 2008ko urtarrilean munduko burtsa nagusiek beherakada orokorrak jaso zituzten. Harez geroztik, gorakadak, beherakadak eta ezegonkortasuna etengabeak izan dira. Burtsek beheranzko joera garbia erakutsi zuten. Beherakada handiena irailean gertatu zen, Lehman Brothers AEBetako negozio bankuak porrot egin zuenean. Geroztik, estatubatuar gobernuaren erreskate plana aurkeztu ondoren beste gorakada bat izan zuten burtsek, baina 2007ko balioetara iritsi gabe. Hain zuzen ere, IBEX indizeak 12.000 puntuko langa galdu zuen 2008ko uztailean eta 8.000 puntura hurbildu zen azaroan, 2007. urte osoan 14.000 puntuetatik gora egon zen bitartean. Down Jones indizeak antzeko joera erakutsi zuen, eta 2007an 12.000 puntuetatik gora egon ondoren, 2008ko hirugarren hiruilekoan 8.000 puntuetara jaitsi zen.

Urte baterako euriborraren bilakaera

23. irudia



Iturria: Espainiako Hipoteka Elkarte.

Urte baterako euriborraren eta epe laburreko interes tasen artean dagoen lotura estuak lehenengoaren bilakaera baldintzatu zuen. Hain zuzen ere, EBZk 2005eko abenduan interes tasak igo zituenetik, euriborrak goranzko joera etengabea hartu zuen, salbuespen bakarra 2007ko urria eta azaroa izan zirelarik. Garai horretan, EBZk interes tasen hurrengo igoera atzeratzea erabaki zuen, subprime hipotekek finantza merkatuetan eragin zuten ziurgabetasunaren ondorioz. Hala eta guztiz ere, abenduan, interes tasak bere horretan jarraitu arren, euriborra igo egin zen eta %4,793ko batez bestea markatu abenduan, 2000eko abendutik izan duen altuena baita.

Euriborra interes tasen bilakaeraren adierazle aurreratu bat izateaz gain, bankuek elkarri dirua uzteko orduan eskatzen duten prezioa kalkulatzeko ere erabiltzen da. Hori horrela izanda, 2007ko amaieran bankuek urteko balantzeak onbideratu eta likideziako arazorik gabe aurkeztu nahi izan zutenean, diruaren eskaera izugarri areagotu zen, eta horrekin batera bankuek maileguetan eskatzen zuten prezioa ere bai.

2008ko hasieran bankuen arteko europar tasa esku hartzeko tasaren bilakaerara gehiago hurbildu zen eta jaisten hasi, baina beheranzko joera horrek bi hilabete baino ez zuen iraun. EBZk diruaren prezioa gehiago igo ez bazuen ere, euriborra gero eta altuago zegoen. Goranzko bilakaera horretan, maiatzean %5 gaintu zuen, azken zortzi urteko mailarik gorena. Norabide gorakor horrek 2008ko urria arte jarraitu zuen. Hilabete horretan banku zentral nagusiek, ekimen bateratu batean, esku hartzeko interes tasak jaitsi zituzten, finantza krisiari aurre egiteko. Dena dela, euriborra jaisten hasi zen arren, erreferentziako interes tasaren oso gainetik jarraitu zuen.

Ez da harritzekoa kredituen bilakaera ere ekonomia orokorrean hedatutako ziurgabetasunak baldintzatu izana. Interes tasen hazkundeak arlo pribatuaren finantzazioak izan zuen moteltzea justifikatzen du, %13,5 hazi baitzen. Tasa hori oraindik oso sendoa da, baina ez da iritsi aurreko urteetako balioetara. Gutxiago hazi izanaren arrazoia, batez ere, etxebizitza erosteko maileguen ahultasunaren ondorioa da, kreditu pribatu guztietatik %50 baino zertxobait gehiago biltzen baitute eta azken urteetako gehikuntza txikiena jaso baitute. 2008ko lehen seihilekoan, moteltzeko joera hori areagotu zen eta kreditu pribatuak %6,1 jaitsi ziren, 1997. urtetik jaso den erritmo apalena baita.

Azkenik, bankuetako gordailuak finantza entitateetako lehentasunetako bat bihurtu ziren, likidezia faltarengatik. Hori dela eta, pasiboa erakartzeko produktu berriak eta eskaintza


2007ko urteko txostena

bereziak merkaturatu ziren. Horren ondorioz, gordailuen hazkundera bi zenbakikoa izan zen 2007ko urtean, eta goranzko joera horrek 2008ko lehen seihilekoan ere jarraitu zuen.


Kredituen eta gordainluen bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasak

24. irudia

Kreditu pribatuak



Gordailu pribatuak



Iturria: Espainako Bankua.

EAE-RAKO ETA TESTUINGURURAKO EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Kanpo testuinguruarentzat eginiko aurreikuspenak

2008ko bigarren erditik, ekonomia aurreratuak nabarmen narriatu dira. Finantza krisiak, etxebizitzaren merkatzeak eta langabeziaren gorakadak amaiera eman diote ekonomiak azken urteetan bizi duen hedatzeari eta munduko ekonomia nagusiak atzeraldian sartu dituzte. Hala eta guztiz ere, okerrena etortzeko dago. 2009. urtean, garatutako ekonomiek barne produktu gordina gutxituko dute eta urte amaiera arte edo 2010. urtea arte itxaron beharko da susperraldia hautemateko, indarrean sartu diren ekonomia politikek bere eragina hedatzen dutenean. Beste aldetik, garapen bidean dauden ekonomiek moteltzeko joera arina erakutsiko dute, mendebaleko herrialdeetan nagusi izango den etsipenak kutsatuta. Izan ere, ekonomia krisia Asiako herrialde indartsuetan horren larria ez izan arren, hauek ere nozituko dituzte beraren ondorioak.

EKONOMIA AURREIKUSPENAK 37. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			
	Aurreikuspenak		Urriko txostenarekiko aldeak	
	2008	2009	2008	2009
Munduko ekonomia	3,7	2,2	-0,2	-0,8
AEB	1,4	-0,7	-0,1	-0,8
Kanada	0,6	0,3	-0,1	-0,9
Japonia	0,5	-0,2	-0,2	-0,7
Eurogunea	1,2	-0,5	-0,1	-0,7
Europar Batasuna	1,5	-0,2	-0,2	-0,8
Alemania	1,7	-0,8	-0,2	-0,8
Spainia	1,4	-0,7	---	-0,5
Frantzia	0,8	-0,5	-0,1	-0,6
Italia	-0,2	-0,6	-0,1	-0,4
Erresuma Batua	0,8	-1,3	-0,2	-1,2
Errusia	6,8	3,5	-0,2	-2,0
Txina	9,7	8,5	-0,1	-0,8
India	7,8	6,3	-0,1	-0,6
Mexiko	1,9	0,9	-0,1	-0,9
Brasil	5,2	3,0	---	-0,5

Iturria: NDF. 2008ko azaroa.


2007ko urteko txostena

AEBetako ekonomiaren gainean zailtasun gehiegi hautematen dira. Finantza krisiak kreditu merkatuen murrizketa harrigarria eragin du eta horrek ekonomia jardueraren beherakada ekarri du berekin, baita lan merkatuaren narriadura ere. Finantza arloaren egoera onbideratzen denean eta konfiantza merkatuetara itzultzen denean, suspertuko da berriro bertako BPG. Halaber, zerga alorreko neurriak beharrezkoak izango dira ekonomia suspertzeko eta, bereziki, merkatuei baikortasuneko seinaleak helarazi, finantzen merkatuetako araudia eraginkorra dela baieztatzen duten neurriak hartuz. Merkatuetako egonkortasuna, eragileen konfiantza eta merkataritza izango dira 2010. urtean ekonomiaren susperraldia eragingo duten faktoreak.


Munduko BPGren bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasak

25. irudia


Euroguena




AEB



Japonia




Asiako Hegoekialdea



Iturria: NDF eta Ceprede.


Krisiak kaltetutako beste ekonomia eremu garrantzitsu bat Eurogunea da. Aurkeztu diren aurreikuspenek baieztatzen dute europar ekonomiak ere finantza krisiaren ondorioak nozitu dituztela, Europako zenbait bankuk beren aktiboen artean funts kutsatu asko gordetzen zituztelako. Barne eskaria nabarmen murriztuko da 2009an eta susperraldi arina lortuko da 2010. urtean. Atzeraldia larriagoa izango da finantza arloko zurrumbiloez eta etxebizitzaren merkatzeak gehien kaltetu dituen herrialdeetan. Ekonomia horien artean, Luxenburgo, Irlanda eta Espainia egongo dira. Europako Banku Zentralak protagonismo berezia izango du susperraldi horretan. Beraren eskuetan egongo da ekonomiaren hazkundera lagunduko duen moneta politika bat ezartzea, interes tasen jaitsiera ardatz izango duena, eta lasaitasuna zein konfiantza areagotuko dituzten politikak bideratzea.

Euroaren eta dolarraren truke tasaren bilakaera 26. irudia



Iturria: Espainiako Bankua eta Ceprede.

Petrolioaren prezioaren bilakaera 27. irudia



Iturria: Ekonomia eta Ogasun Ministerioa eta Ceprede.

Europako herrialdeen artean, Espainia da krisia intentsitate handienez sufrutuko duen herrialdeetako bat. Ekonomia Aurreikusteko Erakundearen (Ceprede) ikerketen arabera, BPG asko jaitsiko da 2009. urtean, hazkunde tasa %-1,0an kokatuko baita. 2010. urtean hobekuntza igarriko da, 2011n sendotuko dena, hurrenez hurren %-0,1 eta %0,5 hazita. Aurreikuspenak egiten dituzten gainontzeko erakundeek, Funcas-en taldean bilduta, 2009. urterako bakarrik eskaintzen dute eta urte horretarako espero duten hazkundera %-0,9 da.

2007ko urteko txostena

ESPAINIARENTZAKO AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK (2008ko azaroa-abendua)

38. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG		Familien kontsumoa		Kontsumo publikoa		Inbertsioa guztira		Inbertsioa eraikuntzan		Inbertsioa ekipamenduan	
	2008	2009	2008	2009	2008	2009	2008	2009	2008	2009	2008	2009
AFI	1,3	-1,0	1,0	-1,5	3,7	4,9	-1,0	-7,6	-3,0	-10,1	0,7	-8,2
BBVA	1,3	-1,0	1,1	-0,5	3,8	3,5	-2,0	-9,1	-4,0	-9,6	-1,3	-13,9
Caixa Catalunya	1,3	-0,9	0,8	-2,3	4,8	4,4	-1,1	-3,8	-4,0	-6,7	1,3	-3,5
Caja Madrid	1,2	-1,3	0,7	-2,5	4,5	3,3	-1,7	-10,3	-4,8	-13,0	1,3	-10,3
CEPREDE-UAM	1,3	-1,0	0,9	-0,9	4,0	2,7	-0,5	-4,4	-2,7	-6,9	2,4	-0,9
Merkatal ganbarak	1,3	-0,6	1,0	-0,3	3,8	3,1	-0,5	-5,2	-3,1	-7,5	2,0	-3,4
FUNCAS	1,2	-1,5	0,4	-2,0	5,0	3,5	-1,8	-8,4	-4,3	-9,4	0,1	-9,9
ICAE-UCM	1,3	-0,9	0,6	-1,2	4,8	4,1	-1,2	-5,4	-4,3	-7,6	1,4	-6,0
IEE	1,3	-1,3	1,1	-1,0	4,5	4,5	-0,3	-5,0	-3,5	-10,0	1,5	-6,0
IFL-UC3M	1,3	-0,6	0,8	-0,1	3,5	3,7	-0,5	-2,7	-1,9	-3,4	0,3	-3,1
Intermoney	1,2	-1,0	0,6	-1,0	5,0	2,7	-1,8	-8,6	-4,4	-10,3	0,6	-9,1
La Caixa	1,4	0,1	1,1	0,4	4,0	4,1	-1,0	-5,1	-3,5	-7,7	1,5	-3,8
SCH	1,3	-1,0	0,7	-0,9	5,1	4,5	-1,5	-5,9	-4,1	-8,5	1,3	-3,6
Batez bestea	1,3	-0,9	0,8	-1,1	4,4	3,8	-1,2	-6,3	-3,7	-8,5	1,0	-6,3
Gogoratzekoa:												
Gobernua (2008-09)	1,6	1,0	0,7	0,4	4,9	3,8	0,3	-1,5	-1,8	-5,1	2,8	2,7
E. Bankua (2008-04)	2,4	2,1	2,3	1,9	4,8	4,4	1,5	0,4	-0,2	-1,2	4,4	2,6
Eur. Batz. (2008-11)	1,3	-0,2	0,9	-0,4	4,1	1,3	-1,6	-5,8	-3,8	-7,6	0,8	-5,2
NDF (2008-11)	1,4	-0,7	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---
ELGE (2008-11)	1,3	-0,9	1,2	-0,4	3,6	3,4	-2,0	-9,2	---	--	---	---

Iturria: Funcasen adituena taldea.

Kontsumoak hazkunde tasa txikitzen jarraituko du, aberastasun efektua negatiboa (txirotasun efektua) izango delako eta langabezia areagotuko delako. Familien artean, mesfidantza izango da nagusi eta aurrezteko joera erakutsiko dute garbi ikusten ez den etorkizun kezkarriari aurre ahal izateko. Inbertsioak beherakada handia jasoko du barne zein kanpo eskaria ahul egongo direlako, kreditua lortzeko finantza baldintzak gogorragoak izango direlako eta horrek zenbait proiektu abiaraztea eta enplegua sortzea zailduko ditu, eta enpresarien mesfidantza handia delako.

2007ko urteko txostena

Enpleguaren hazkundera negatiboa izango da. Cepredek 700.000 lanpostu inguru galduko direla estimatu du 2009-2011 epealdirako. Lanpostu horietatik erdia baino gehiago aurten desagertuko dira. Horren ondorioz, langabezia tasa gutxi gorabehera %14,0ra igoko da 2009. urtean, baina 2011. urtea arte goratuz jarraituko duela aurreikusten da. Urte horretan, langabezia tasa %17,0aren inguruan kokatuko da.

ESPANIAREN AZAROA-ABENDUA (2008ko azaroa-abendua)

39. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasa

	Nazio eskaria		Esportazioak		Inportazioak		KPI (batez bestea)		Enplegua		Langabezia tasa (BAI)	
	2008	2009	2008	2009	2008	2009	2008	2009	2008	2009	2008	2009
AFI	1,0	-2,2	3,3	-1,3	1,7	-4,4	4,3	2,6	-0,3	-3,4	11,1	15,6
BBVA	0,8	-2,0	3,1	-1,6	1,1	-4,3	4,3	2,3	-0,2	-2,7	11,0	15,4
Caixa Catalunya	0,9	-1,4	3,0	1,7	1,0	-0,5	4,2	1,1	-0,1	-2,2	10,8	13,5
Caja Madrid	0,8	-3,3	3,2	1,1	1,4	-4,7	4,2	1,7	-0,4	-3,9	11,1	15,8
CEPREDE-UAM	1,3	-0,9	3,1	2,1	2,4	0,7	4,3	2,9	0,0	-2,3	10,8	14,4
Merkatal ganbarak	1,3	-1,0	3,3	-0,2	2,6	-1,3	4,3	2,7	0,2	-1,4	10,9	15,0
FUNCAS	0,6	-2,7	2,9	0,2	0,5	-4,1	4,2	1,8	-0,4	-3,4	11,2	15,9
ICAE-UCM	0,8	-1,6	2,7	0,3	0,7	-1,7	4,3	2,9	0,1	-0,7	11,0	14,8
IEE	1,1	-1,9	3,2	1,7	2,0	-0,5	4,2	2,0	-0,1	-2,0	11,0	15,5
IFL-UC3M	1,0	-0,3	2,4	2,2	1,2	0,9	4,2	2,0	-0,2	-2,2	11,0	15,1
Intermoney	0,6	-2,4	3,0	1,3	0,8	-3,5	4,1	1,1	-0,3	-3,5	11,1	15,5
La Caixa	1,0	-0,5	3,8	2,1	2,2	-0,2	4,2	2,1	-0,1	-1,5	10,9	13,6
SCH	0,9	-1,4	2,8	-0,5	1,0	-1,7	4,3	2,3	-0,1	-2,7	11,0	15,4
Batez bestea	0,9	-1,7	3,1	0,7	1,4	-2,0	4,2	2,1	-0,1	-2,5	11,0	15,0
Gogoratzekoa:												
Gobernua (2008-09)	1,3	0,5	4,1	4,0	2,6	1,9	---	---	0,2	-0,5	10,4	12,5
E. Bankua (2008-04)	2,5	1,9	4,0	4,5	4,1	3,4	3,6	2,3	1,5	1,1	9,0	9,8
Eur. Batz. (2008-11)	0,7	-1,6	3,4	2,3	1,3	-2,5	4,2	2,1	-0,2	-2,0	10,8	13,8
NDF (2008-11)	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---
ELGE (2008-11)	---	---	3,2	3,7	0,9	-1,6	4,4	1,8	---	---	10,9	14,2

Iturria: Funcasen adituena taldea.

Okerrera egin dezakeen beste alderdi bat finantza publikoena da, defizit publikoa 2011. urtea arte etengabe igoko baita. Diru sarreren murrizketak, bereziki zeharkako zergen bidez

2007ko urteko txostena

bildutakoa, eta gastuen gorakadak, langabezi sariak, kontsumo publikoa eta interesen ordainketak igoko direlako, defiziteko egoera eragingo dute. Zikloari aurre egiteko arlo publikotik egingo den edozein politikak ondorio negatiboak izango ditu, hala defizitean nola zor publikoan, datozen urteetan.

ESPAINIAKO EKONOMIARENTZAKO AURREIKUSPENAK (2008ko azaroa)

40. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak


	2008	2009	2010	2011
BPG	1,3	-1,0	-0,1	0,5
Kontsumo pribatua	1,2	-0,9	-0,2	0,1
Kontsumo publikoa	3,6	2,7	2,1	0,7
Kapital finkoaren eraketa gordina	-0,5	-4,4	-2,6	-0,6
- Inbertsioa ekipamenduan	2,4	-0,9	-0,5	0,8
- Inbertsioa bestelako ekoizketetan	2,7	-1,7	1,0	1,2
- Inbertsioa eraikuntzan	-2,7	-6,9	-4,8	-2,1
Barne eskaria	1,3	-0,9	-0,1	0,1
Esportazioak	3,1	2,1	3,1	3,5
Inportazioak	2,4	0,7	1,5	1,8

Iturria: CEPREDE.

Estatuko BPGren bilakaera

28. irudia

Urte arteko aldakuntza tasak




Iturria: INE eta CEPREDE.

Estatuko hazkundeari eginiko ekarpenak

29. irudia

Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: INE eta CEPREDE.

Aurreikuspen hauetako alderdi baikorrena inflazioan aurkitzen da. Gehieneko balioa 2008. urtean jaso ondoren, 2009-2011 epealdian behera egingo du oso bizkor. Energiako ekoizkinen eta elikagaien merkatze garrantzitsuak eta ekonomia hazkunderari buruzko igurikimen ezkorrek zail egiten dute prezioen indize orokorrak nabarmen gorago jotzea.

EAEko ekonomiarako aurreikuspenak

Kanpo inguruneko egoera aipatu den hori delarik eta argitaratu diren azken adierazleak kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoak datozen urteetan izango duen hazkunde aurreikuspena beherantz berrikusi da. Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak estimatu du ekonomiaren hazkundera %0,5 bakarrik izango dela 2009. urtean, eta susperraldia 2010 hasiko dela, 2011n gehiago finkatuko delarik, hurrenez hurren, %0,9 eta %1,4 hazita.

EAE-KO EKONOMIARENTZAKO AURREIKUSPENAK

41. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2008	2009	2010	2011
BPG	2,2	0,5	0,9	1,4
Azken kontsumoa	2,0	1,1	1,2	1,5
Kontsumo pribatua	1,3	0,3	0,5	0,9
Kontsumo publikoa	5,2	4,8	4,2	3,9
Kapital eraketa gordina	2,2	-0,6	-0,2	0,5
Barne eskariaren ekarpena	2,3	0,8	0,8	1,2
Kanpo eskariaren ekarpena	-0,1	-0,3	0,1	0,2
Lehen arloa	0,2	-4,4	-2,2	-0,1
Industria	0,9	-1,1	-0,5	0,7
Eraikuntza	0,3	-1,8	-1,3	-0,4
Zerbitzuak	3,0	1,7	1,9	2,1
Balio erantsi gordina	2,1	0,5	0,9	1,4
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	2,4	0,8	0,8	1,0
BPGren deflatorea	3,8	2,1	1,8	2,0
Enplegua	0,9	-0,7	-0,2	0,4
Langabezia tasa	3,7	5,1	5,0	4,7

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.


2007ko urteko txostena

Eskaintzaren ikuspegitik, industria jarduerak beherakada nabarmena izango duela aurreikusten da. Hain zuzen ere, sektore horren balio erantsia 2009. urtean %-1,1 jaitsiko dela espero da. Txikiagoa izango den arren, 2010. urtean ere hazkunde tasa negatiboa jasoko du eta susperraldia 2011. urtean iritsiko da. Eraikuntzaren egoerak okerrera egingo du eta beherakadak jasoko ditu aurreikuspeneko epealdiaren urte guztietan. Etxebizitzaren eraikuntzak izango duen eskaria txikiak eta obra publikoak gainontzeko atalen ahultasuna konpentsatzeko erakutsiko duen ezintasunak eraikuntza arloaren jaitsiera garrantzitsua ekarriko dute. Beste aldetik, zerbitzuek, EAEko ekoizpen egituraren pisu handiena duen arloa baita, portaera onena erakutsiko dute urte horietan. 2009. urtean moteltzeko joera garbia marrartzuko duten arren, ekonomiaren hazkundera sustatuko duen sektorea izango da. Aipatu den moteltzeko joera garbiagoa izango da zerbitzu pribatuetan, administraziozko zerbitzuek, aurrekontuen balizko murrizketak egon arren, bilakaera positiboagoa lortuko duten bitartean.

EAEko BPGren bilakaera

30. irudia

Urte arteko aldakuntza tasak




Iturria: Eustat eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

EAEko hazkundeari eginiko ekarpenak

31. irudia

Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: Eustat eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Barne eskariaren osagai guztiek jaitsierak jasoko dituzte datozen urteetan. Familien konfiantza ezak, txirotasun efektuak eta lan merkatuaren bilakaeraz dauden igurikimen ezkorrek ondasunak eta zerbitzuak erosteko orduan zuhertasuna areagotuko dute EAEko familiengan. Kontsumo pribatuak bere hazkunde erritmoa galgatu du eta kontsumitzaileek lortutako

irabaziak aurreztea hobetsiko dute, aurrean izango duten ekonomia egoera zailari hobeto aurre egiteko.

Kapital eraketa gordinak ere une txarra igaroko du aurreikuspen hauen epealdi osoan. Barne zein kanpo eskarien ahultasunak agregatu honen jarduera baldintzatuko du. Ekonomiaren nazioarteko testuinguruarentzat espero den egoera eta EAEko industria kanpora oso zabalik dagoela kontuan hartuta, Europan aurreikusten diren galerek pentsarazten dute Araba, Bizkai eta Gipuzkoako ekoizpenak eskari ahula izango duela. Barne ekonomiari begiratuta, eraikuntzaren beherakadak eragin garrantzitsua izango du industriaren inbertsioan, dagoeneko gertatzen ari den bezala. Beste aldetik, etxebizitzaren atala doikuntza fase larri batean dago murgilduta. Eskaintza nabarmen murriztuko da, hasiko diren etxebizitzaren kopurua txikiagoa izango delako. Eskariak ere jaitsiera handia ezagutuko du, enplegua galtzeko, familien errentak murrizteko eta kreditu bat lortzeko baldintza gogorragoko testuinguru batean. Portaera horien ondorioz, prezioen jaitsiera areagotuko da.

Kanpo saldoak ekarpen positiboa egingo dio BPGren hazkudeari 2010. urtetik aurrera, esportazioak inportazioak baino askoz gehiago haziko direlako. Merkatuetan konfiantza berreskuratzen den heinean eta ingurune ekonomiek hazteari ekiten duten ahala, merkataritzako harremanak areagotuko dira eta EAE horretaz baliatuko da, nazioarteko merkatu nagusietan ondo kokatuta dagoelako.

Datozen hiru urteetan ez da aurreikusten gehiegizko inflazioa egongo denik. Behin lehengaietan eta elikagaietan sortu ziren desorekak konponduta, barne produktu gordinerako estimatu diren deflatoreak %2,0aren inguruan edo beherago kokatuta daude. Aurreikuspen hori orokorra da Eurogune osoan eta, horren ondorioz, Europako Banku Zentralak helburu nagusitzat ekonomiaren hazkundera har dezake moneta politikak egituratzeko orduan, orain arte inflazioaren egonkortasuna izan den arren.

Ekonomia jardueran aurreikusten diren beherakada garrantzitsuek lanpostuak galaraziko dituzte arlo guztietan, baina bereziki etxegintzarekin zerikusia dutenetan. Izan ere, 2009. urterako 7.000 lanpostu inguru galduko direla espero da. 2010. urtean ere enplegua galduko dela aurreikusten da, baina aurreko urtekoa baino zertxobait txikiagoa. Aitzitik, 2011. urtean hasiko da joera iraultzen eta ekonomiaren susperraldiak eragin onuragarria izango du lan merkatuan ere, lanpostu garbi batzuk sortuz. Langabezia tasak antzeko bilakaera erakutsiko du

2007ko urteko txostena

eta langabeen kopurua bereziki 2009. urtean haziko da, azken hiru urteko emaitzen aldean baliorik gorena jasota.

Aurreikuspen hauen gainean oraindik ziurgabetasun handia dago, ez dagoelako jakiterik zein izango den finantza krisiaren benetako kaltea, noiz arte iraungo duen eta noraino iritsiko den bere eragina. Halaber, argitu gabe dago kreditu murrizketa garrantzitsuak ekarriko dituen galerak. Beste aldetik, mesfidantzako testuinguru honetan, ezin da baztertu orain arte agertu ez den beste elementuren bat azaltzea, nazioarteko erakundeek eginiko eszenategi makroekonomikoak osorik desitxura ditzakeena.